



Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Karta.

Nafarroari buruzko 2. Txostena.

AURKIBIDEA

1. Sarrera

2. Atarikoak

Bilakaera historikoa
Hizkuntzaren identifikazioa
Hizkuntzaren aldeko erakundeak

3. Ministroen Batzordeak egindako gomendioak betetzea

4. II. Zatia. EGHEKren 7. artikulua

- 1.a) paragrafoa. Kultur aberastasuna.
- 1.b) paragrafoa. Administrazio banaketak.
- 1.c), d) paragrafoak. Sustapena.
- 1.e) paragrafoa. Hizkuntza bera duten lurraldeekiko harremanak.
- 1.f), g), h), i) paragrafoa. Hizkuntza irakastea eta ikertzea.
- 1.i) paragrafoa. Nazioz gaindiko harremanak.
- 2) paragrafoa. Diskriminazio positiboa.
- 3) paragrafoa. Elkar ulertzea eta tolerantzia.
- 4) paragrafoa. Bizilagunen borondatea aintzat hartzea.

5. III. Zatia. EGHEKren 8tik 14ra arteko artikulua.

EGHEKren 8. artikulua. Irakaskuntza

- Atarikoak.
- 1.a) paragrafoa. Eskolaurreko Heziketa
 - 1.b), c) paragrafoak. Lehen eta Bigarren Heziketa.
 - 1.d) paragrafoa. Lanbide Heziketa.
 - 1.e) paragrafoa. Unibertsitatea
 - 1.f) paragrafoa. Helduen heziketa
 - 1.g) paragrafoa. Historia eta kultura irakastea.
 - 1.h) paragrafoa. Irakasleak prestatzea.
 - 1.i) paragrafoa. Ikuskaritza-organoak.
 - 2. paragrafoa. Irakaskuntza bestelako lurraldeetan.

EGHEKren 9. artikulua. Zuzentza edo Justizia.

EGHEKren 10. artikulua. Administrazioa.

Atarikoak.

1. a), b), c) paragrafoak. Estatuko Administrazioa. Herritarrentzako arreta.
2. a), b) paragrafoak. Eskualdeko eta Tokiko Administrazioa. Herritarrentzako arreta.
2. c), d) paragrafoak. Eskualdeko eta Tokiko Administrazioa. Testu ofizialak.
2. e), f) paragrafoak. Eskualdeko eta Tokiko Administrazioa. Euskara eztabaida saio publikoetan erabiltzea.
2. g) paragrafoa. Eskualdeko eta Tokiko Administrazioa. Toponimoak erabiltzea.
3. a), b) paragrafoak. Euskara zerbitzu publikoetan erabiltzea.
4. a), b), c) paragrafoak. Itzultzaileak, funtzionarioak.
5. paragrafoa. Patronimikoak

EGHEKren 11. artikulua. Komunikabideak.

1. ai), bi), ci) paragrafoak. Telebista eta irratia.
1. d) paragrafoa. Ikus-entzunezko ekoizpena sustatzea.
1. ei) paragrafoa. Prentsa.
1. fii) paragrafoa. Ekoizpenerako laguntza handitzea.
1. g) paragrafoa. Kazetariak prestatzea.
2. paragrafoa. Informaziorako askatasuna bermatzea.
3. paragrafoa. Hitzunen interesak ordezkatzeta.

EGHEKren 12. artikulua. Kultur jarduerak eta zerbitzuak.

EGHEKren 13. artikulua. Ekonomia eta gizarte arloa.

EGHEKren 14. artikulua. Mugaz gaindiko harremanak.

6. Ondorioak

1. Sarrera

1992ko azaroaren 5ean, Espainiak Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Karta sinatu zuen (EGHEK). Ondoren, 2001eko apirilaren 9an, Karta berretsi zuen; Karta berresteko bitartekoa Estatuko Aldizkari Ofizialaren 222. zenbakian argitara eman zen (2001-09-15).

Kartak hauxe aurreikusten du bere 15. artikuluan: *“Kartagileek aldian-aldian eta Ministroen Lantaldeak erabakiko duen moduan, karta honetako II. zatiaz¹ bat eta III. Zatik² onartutako erabakiak ezartzearen ondorioz, aurrera eraman duten politikari buruzko txosten bat aurkeztu beharko diote Europako Kontseiluko Idazkari Nagusiari. Lehen txostena kasuan kasuko Zatiari buruzko Karta indarrean jarri eta hurrengo urtean aurkeztu beharko da...”*.

Konpromisoarekin bat, Espainiako Erresumak EGHEKren aplikazioari (Espainia barnean) buruzko bigarren Txostena³ aurkeztu du 2007ko apirilaren 30ean. Beste alde batetik, aipatu Kartaren 16.2 artikulua dio *“Legez kartagile bilakatutako erakunde eta elkarteek, Adituen Lantaldeari⁴ oharra aurkezteko aukera izango dute, karta honen III. zatiaren arabera kartagile horrek dituen konpromisoen inguruko gaiak direla eta”*.

Euskara Kultur Elkargoa Fundazioa (EKE) Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Fundazioen Erregistroan inskribatua dago (114 zenbakiarekin), Barne zuzendari nagusiak 2001eko urtarrilaren 10ean emandako 52/2001 ebazpenaren arabera. Fundazioa eratu da euskara eta euskal kultura Nafarroan ezagutzera eman, garatu eta zabaltzeko, bai eta euskaldunei aitortu zaizkien eskubideak defendatzeko ere; hori dela eta, Fundazioak zilegitasuna du, Euro-kartak Nafarroan izan duen aplikazioari buruzko txostena

¹ II. Zatia: Helburu eta oinarriak: 7. artikulua

² III. Zatia; Jendaurreko jardunean erregio edo gutxiengoen hizkuntzak erabiltzearen aldeko neurriak: 8-14. artikulua.

³ Txostena helbide honetan dago eskura:

http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/local_and_regional_democracy/regional_or_minority_language/s/2_Monitoring/Monitoring_table.asp#TopOfPage

⁴ Kartaren 16.1 artikulua arabera, Lantaldeak Txostena aztertu behar du. Kartaren 17. artikulua arautzen du Lantaldearen eraketa.

egin eta Adituen Lantaldeari igortzeko. Halaber, gure iritziz, aipatu ere aipatu beharra dago Fundazio honek berak egin zuela Kartak Nafarroan izan zuen aplikazioari buruz Europako Kontseiluaren Idazkaritzan aurkeztu zen lehenbiziko txostena⁵.

Euskara Kultur Elkargoak eta Hizkuntza Gutxituen Europako Bulegoak (EBLUL) defendatzen duten hizkuntza politikak bat egiten du Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Kartan bilduta dauden balio eta neurriekin, bai eta Europako Kontseiluko ministroen batzordeak⁶ eta Europako Kontseiluko Adituen Lantaldeak emandako gomendioekin ere, betiere oinarriok aintzat hartuta:

- **Berdintasuna** Nafarroako bi erkidego linguistikoentzat. Nafarroako bi hizkuntzek lege-estatu berbera izan behar dute. Gaztelaniak duen estatus berbera eman behar zaio euskarari, hau da, euskara Nafarroa osoko hizkuntza ofizial gisa aitortu behar da, horixe baita herritar guztien arteko berdintasuna bermatzeko lehen baldintza. Egungo legediak euskaldunen aurka bildua duen bazterkeria oro zuzendu beharko luke hizkuntza politikak; hasteko eta bat, LORAFNAREN 9. artikulua.
- **Borondatezkotasuna** herritarrentzako, Nafarroako zer hizkuntza erabili aukeratzeko, eta derrigortasuna Administrazioarentzako, herritarren borondate hori aukeraketa-eskubide gisa errespetatzeko.
- Nafarroan dauden administrazio guztiek nafar guztien **hizkuntza eskubideak babestea**, euskaldunenak nahiz erdaldunenak.
- Mendez mende baztertua eta legez zapaldua egon den hizkuntzaren **aldeko ekintza (ekintza positiboa)**. Euskara gaztelaniarekin berdintzen ahalko da, urteetako politika baztertzailak eragindako gabeziak zuzentzen direnean. Ekintza positiboa demokraziaren tresna da, egoera juridikoak parekatzeko.

⁵ Txostena hementxe dago eskura: <http://www.euskarakultur.org/eke/accion/MainGralInformes>

⁶ Europako Kontseilua. Ministroen Batzordearen 3 RecChL gomendioa (2005) Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Kartak Espainian izan duen aplikazioari buruz. (Ministroen Batzordeak 2005eko irailaren 21ean onetsia; ministroen ordezkarien 938. bilera, hain zuzen ere)

- **Malgutasuna** hizkuntza politika Nafarroa osora aplikatzerakoan, mailakako aplikazioak ahalbidetuz. Minimo batzuk ezarri beharko lirateke Nafarroa osorako, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko xedez eta kasuan kasuko egoera soziolinguistikora egokitutako politika ezartzeko. Toki entitateek eginkizun garrantzitsua bete eta protagonismo handia izan behar dute, aipatu hizkuntza politikaren mailak eta intentsitateak definitzerakoan.
- **Mailakatzea** ofizialtasunari lotutako neurriak ezartzerakoan, egoera soziolinguistikoa gauza dinamiko gisa aintzat hartuz.
- **Zeharkakotasuna**, Nafarroako hizkuntzei eman beharreko tratuak administrazio-departamentuaren esparruaz haratago jotzen duelako, eta jarduera politiko oro hartuko duen zeharkako balio eta irizpidea izan behar duelako.

Euro-kartak Nafarroan duen aplikazioari buruz, Espainiak egin duen txostena aztertzen eta baloratzen hasi baino lehen, EKE-EBLUL erakundeok berretsi nahi dugu Nafarroako berezko bi hizkuntzak arras egoera desberdinean daudela ezagutzari eta erabilerari dagokienez. Azken hamarkada hauetan, bi hizkuntzen egoerak parekatzearen alde lan egin beharrian, Nafarroako Foru Administrazioaren hizkuntza politikaren oinarria izan da legez tratu desberdina ematea euskarari eta gaztelaniari; era berean, hizkuntza-mugak sortu ditu bere lurraldearen barnean bertan, eta hizkuntza eskubide desberdinak aitortzen dizkie herritarrei, euskaldunen kaltetan. Horren ondorioz, eta azken legealdietan Nafarroako Gobernuak euskararen aurka egin duen politika erasotzaileak larriagotuta (Union del Pueblo Navarro-UPNek eta Convergencia de Demócratas Navarros-CDNk osatutakoa), egun arras egoera desberdinean daude nafar euskaldunak eta nafar erdaldunak, zerbitzu publikoak beren hizkuntzan erabili ahal izaterakoan.

Gogoratu nahi dugu, bestalde, Espainiako agintariek Euro-karta berrestearekin batera hartu zituzten konpromisoak betetzen laguntzea dela Txosten honen xedea.

Iruña, 2007ko abuztua.

2. Atarikoa

Lehenik eta behin, tankera semantikoko ñabardura bat aipatu beharra dago. Espainiako agintariak aurkeztutako Txostenaren zenbait zatitan, Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) *País Vasco*ekin identifikatzen da eta hori ez da zuzena, ezta kasualitatea ere. EAE Espainiako Estatuak osatzen duten 17 autonomia erkidegoetako bat da eta hiru probintzia ditu: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa. País Vasco, ordea, gaztelaniaz erabiltzen den forma da, euskaraz Euskal Herria esaten diogunari deitzeko eta frantsesez Pays Basque erabiltzen da.


Euskal Herria euskararen herria da eta lurralde hauek biltzen ditu: Euskadiko Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa Espainiako Estatuan eta Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherea probintziak –Pirinio Atlantikoetako Departamentua– Frantziako Estatuan. Espainiako nazionalismoak Euskal Herria Euskal Autonomia Erkidegoarekin parekatzen du; argi dago hori gauza okerra dela eta politikoki interesatua. Agintariak bi kontzeptu horiek parekatzen dituzte, 1978an Espainiako Konstituzioak sorrarazi zuen administrazio eta autonomia arloko egitura Espainiako Estatuak bere mugen barnean aitortzen dituen nazionalitateekin identifikatzeko, eta hori ez da zuzena.

Nagusiki, Partidu Popularra (PP) (Nafarroan UPN) eta Partido Socialista Obrero Español (PSOE) dira nazionalismo espainiarraren ordezkariak; bada, nazionalismo horrek oker erabiltzen ditu nahita bi kontzeptu horiek, Euskal Herriko gizartearen zati handi baten xede politikoak ahultzeko⁷.

Bilakaera historikoa

⁷ 2007ko Nafar Parlamenturako hauteskundeak aurretik, Nafarroako Gobernuan dagoen UPN alderdiak (PPren marka Nafarroan) hitzarmen politiko bat eskaini zion PSOERI, euskal alderdi abertzaleak Nafarroako Gobernuan ez sartzeko. PSOEek ez zuen eskaintza onartu.

Bigarren Txosten horretan lehenbizikoan baino aipamen handiagoa egiten zaio bilakaera historikoari; baina, halere, aipatu gabeko gi gauza dira deigarri: batetik, Nafarroari inolako aipamenik ez egitea, kontuan hartuta, gainera, Nafarroako erresuma independentea izan zela XVI. mendera arte eta Estatuaren administrazio egiturak ez zuela lurralde hori behin betiko bereganatu harik eta XIX. mendera arte. Erran nahi baita, Nafarroa XIX. mendean bilakatu zen Espainiako probintzia hutsa. Bestetik, ez dira inola ere aipatzen mendez mende izan diren debeku eta zigorrak, horiek eragin baitute, beste arrazoi batzuekin batera, gaztelaniaz bestelako hizkuntzen atzerakada, bazterkeria eta minorizatzea Espainiako Estatuan; zehazki, euskararen atzerakada Nafarroan.



8

EKE-EBLULEk ez du uste hau une egokia denik Nafarroako historiaren gorabeherak orain zehatz-mehatz azaltzeko. Baina historiaren garrantzia aldarrikatzen du, euskarak denboraren joanean Nafarroan izan duen erabileraren bilakaera aztertzeko⁹.

⁸ Mapa hau eskura dago Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren web orrian:

<http://www.pnte.cfnavarra.es/dgu/plantilla.php?id=88&seccion=programacion&padre=88&c=0>

⁹ Horretarako, guztiz gomendagarria da Bixente Serrano Izkok idatzitako *Nafarroa. Historiaren hariak* liburua irakurtzea, Euskara Kultur Elkargoak Iruñean argitara emandakoa (2006)

8

Dena dela, gogoratu nahi dugu Nafarroako Parlamentuak 1980an onetsitako ebazpenak euskara ofizial egin zuela Nafarroa osoan¹⁰ eta estatutuaren araudi-esparru berriak borondate hori aintzat hartu behar izan zuela. Hala eta guztiz ere, Legeak hiru eremutan zatitua du Nafarroa (eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez-euskalduna) eta Erkidego bereko herritarrei eskubide desberdinak aitortzen dizkie, era arbitrarioan aitortu ere, eremu batean ala bestean erroldatuak dauden. Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusi Pedro Pegenaute jaunak (2000-2007) eta UPNko buru nabarmen batek, Jaime Ignacio Del Burgo jaunak, aitortu duten bezala, zatiketa hori irizpide politiko bati zor zaio; izan ere, Espainiako agintariek ezarritako irizpidea izan zen hura, Nafarroako erregimen autonomikoa onesteko prozesuan.¹¹

¹⁰ Euskararen ofizialtasunari buruzko ebazpena. Nafarroako Parlamentuko aldizkari ofiziala, 1980ko azaroaren 18a-34. zk.

¹¹ Nafarroako Parlamentuko Bilkura Saioen Egunkaria. I. Legealdia. 30. zk., 19. or. Eta 32. zk., 23. or. (115)

Hizkuntzaren identifikazioa

Espainiako agintariek puntu honetan espresuki aipatzen dute euskara eremu euskaldunean soilik denez koofiziala, eremu horretan bakarrik aplikatu behar direla Kartaren III. zatian aurreikusitakoari jarraikiz Espainiak hartutako konpromisoak¹².

Horri dagokionez, guk esaten dugu euskara eremu euskaldunean soilik ofizial egiten duen marko juridikoa ez datorrela bat Nafarroako hizkuntza eremuen zedarritzearekin; eta era berean, hizkuntza eremuak osatzen dituzten udalerrien zerrendak ere ez datozela bat lurraldearen egoera soziolinguistikoarekin, ezta haietan bizi diren herritarren borondatearekin ere.

Bestaldetik, azpimarratu nahi dugu Kartaren III. zatia eremu euskaldunean soilik aplikatu nahi izatea agintarien borondate politiko hutsari lotua dagoela eta ez datorrela bat Nafarroako marko juridikoarekin; izan ere, Euskarari buruzko Foru Legeak ez du III. zatiaren aplikazioa eragozten. Aitzitik baizik, hauxe baitio aipatu Legearen lehen artikulua: *“Foru Lege honen xedea euskararen erabilpen normala eta ofiziala arautzea da, gizarte elkarbizitzaren alorrean nahiz irakaskuntzan”* eta *“hauek dira Lege honen ezinbesteko helburuak”*: a) *Herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eginkor bihurtzeko tresnak zehaztea*; b) *Euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz*; c) *Euskararen erabilpena eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatze eta begirune irizpideei jarraiki, hau guztia Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera”*; beraz, Nafarroako herritar guztiei aitortzen die eskubidea, inolako mugarik gabe aitortu ere.

Honaino iritsita, gure iritziz, garrantzitsua da gogora ekartzea zer esaten zuen EGHEK betetzearen bilakaerari buruzko lehen txostenaren azken testuak berak (2005eko irailekoa), 17. orrialdeko 108. puntuan: *“...Gai horri dagokionez, Adituen Lantaldeak gogoratzen du, eskumenen gaineko antolaketa nazionala*

¹² EGHEKren aplikazioa Espainiako Erresuman: bigarren txostena, 18. or.

edozein izanda ere, berretsi dituen itunen (Kartarena, barne) aplikazioaren erantzule izaten jarraitzen duela Espainiak, nazioarteko legediaren arabera..."

Espainiako agintarien interpretazioari men egitea eta Kartaren III. zatia eremu euskaldunean soilik aplikatzea 1986ko Euskarari buruzko Legearen¹³ atzetik joatea da eta, era berean, atzerakada da euskararen erabilera Nafarroan sustatzeko eta normalizatzeko.

Kontraesankorra da, bestalde, Espainiako agintarien txostenak irmo baino irmoago esatea Kartaren III. zatia eremu euskaldunean soilik dela aplikatzekoa eta, aldi berean, Kartaren 8tik 14ra arteko artikuluetako konpromisoak Nafarroan betetzearen berrikuspenean bestelako egoerak eta errealitateak aipatzea; hain zuzen ere, eremu mistoan eta ez-euskaldunean dauden egoera eta errealitateak, artikulua horietan guztietan gainera.

Kontraesan horrek, gure iritziz, agerian uzten du Nafarroako egoera sozialak eta soziolinguistikoak hizkuntza eremuen muga estuak gainditzen dituztela; hori ikusita, gure ustez, agintari espainiarrek beren borondatea eta beren diskurtsoa nafar gizartearen testuingurura eta beharretara egokitu beharko lukete, EGHEKren espirituarekin eta Kartatik eratorritako gomendioekin bat.

Bestalde, beharrezkotzat jotzen dugu gogoratzea ez dela batere ohikoa izan Espainiako erresumak Euro-karta berresteko erabilitako bitartekoa. Ezohikoa da, Kartaren 3. artikulua¹⁴ exijitzen baitu Estatuek espresuki aipatzea zer hizkuntza gelditzen diren III. zatiaren babespean; Espainiako erresumak horrela egin beharrean, eginbehar hori Autonomia Erkidegoetan eskuordetu zuen¹⁵. Europako

¹³ 8. art. 1.b;17. art.; 18. art.; 25. art.; 27. art. Euskarari buruzko 18/86 Foru Legea.

¹⁴ 3. artikulua – Aukerak I. Hitzarmena sinatu duen estatuetako bakoitzak bere berrespen, oniritzi emate edo onarpen-agirian, 2. artikulua 2. idaztiz bat aukeratutako lerroaldiek estatuko lurralde osoan edo lurralde zati batean gutxiago hedatutako erregio edo gutxiengoaren hizkuntzarako nahiz hizkuntza ofizialetako zeintzuri eragingo dioten zehaztu beharko du.

¹⁵ "Espainiak adierazten du, ezen aipatu artikuluetan aurreikusita dauden ondorioetarako, erregioen edo gutxiengoaren hizkuntza direla Euskadiko, Kataluniako, Balear Uharteetako, Galiziako, Valentziako eta Nafarroako Autonomia Erkidegoetako Estatuetan ofizialtzat aitortuak dauden hizkuntzak." Erregioen edo Gutxiengoaren Hizkuntzen Europako Karta berresteko BITARTEKOA; EAO, 222. zk. 2001eko irailaren 15a.

Kontseiluak onartutako forma ezohiko horren xedea ziurrenera izan zen, besteak beste, euskara horrela aipatu behar ez izatea, horrek Nafarroako hiru hizkuntza eremuetako zatiketa gainditzea ekarriko zuelako, Nafarroako legediak euskara foru lurralde osoko berezko hizkuntza aitortzen duelako.

Hizkuntzaren aldeko erakundeak

Beharrezkoa da egoera batzuk argitzea Espainiako Txostenak Nafarroako lurraldeari buruz ekarritako zerrendan, agintarien borondate politikoa zer puntutan dagoen jakiteko.

Foru Gobernuako Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiari dagokionez, bi gauza adierazi behar dira. Lehenik eta behin, 2000. urtean, nafar agintariek Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren eskumenak eta eginkizunak berritu eta aldatu zituzten eta, horren ondorioz, Zuzendaritza Nagusi hori Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusi bihurtu zuten¹⁶. Beraz, Nafarroako Gobernuak egindako erreforma horren bidez, erabat aldatu zen *hizkuntza politika* kontzeptua eta horrek inola ere ez dio onik egin euskarak gizartean duen lekuari. Metamorfosi horren bidez, hizkuntza politika ez da aurrerantzean hizkuntza zehatz bati, euskarari, lotuta egonen, baizik eta, oro har, hizkuntzekin izanen du zerikusia. Horrela, Nafarroako Gobernuarentzat, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren eginkizuna ez da euskararen aplikazioa eta garapena koordinatzea, gaztelaniaz bestelako hizkuntza guztien aplikazioa eta garapena koordinatzea baizik: zehazki, Europako Batasuneko hizkuntza ofizialak, eta bereziki, ingelesa, frantsesa eta alemana. Inolako zalantzarik gabe, euskara (Nafarroako berezko hizkuntza) Europako Batasuneko hizkuntza ofizialekin dekretu bidez parekatzeak euskararen desgaitze juridikoa¹⁷ ekarri du, hizkuntza horiek ez baitute inola ere zerikusirik Nafarroako gizartearekin, kulturarekin eta historiarekin.

¹⁶ 228/2000 Foru Dekretua, ekainaren 19koa, eta 85/2002 Foru Dekretua, apirilaren 22koa.

¹⁷ Nafarroako Auzitegi Nagusiak emandako epaiaren 6. funtsa. Epaiaren zenbakia: 584/2004 (Administrazioarekiko Auzien Sala), maiatzaren 20koa. 391/2003 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Epaila: Joaquín Miqueleiz Bronte jauna.

Bigarrenik, 2007ko abuztuan, Nafarroako Gobernuaren organigrama berrian, kendu egin dute Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusi berria eta, haren ordean, Euskararen Institutua eratuko dela iragarri da; Institutu horrek eginkizun izanen ditu herritarrek euskara jakiteko eta hitz egiteko duten eskubidea babestea, eskubide hori eraginkor izateko tresnak definitzea eta euskara babestu eta garatzea. Oraingoz, ez dute deus gehiago aditzera eman.

Aldi berean, Hezkuntza Departamentuaren organigrama berrian, tokiz aldatu dute Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren Zuzendaritza Nagusiko Euskara Zerbitzua; zerbitzu hori arduratzen da euskarazko eta euskararen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza kudeatzeaz, bai eta, oro har, euskarazko hizkuntza ereduaren premiez ere. Bada, Zuzendaritza-lerruna kendu diote eta atala izatera pasatu da Hizkuntza Plangintzaren Zuzendaritza barnean, betiere Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusian txertatua. Hemendik aurrera, Hezkuntza Departamentuaren barrenean, euskara kudeatuko da gaztelaniaz bestelako hizkuntza europarrekin batera; hau da, euskarak bere berezitasuna galdu du eta beste hizkuntza huts bat izanen da, hots, 2000. urtean, *mutatis mutandis*, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzarekin gertatu zen bezala.

Nafarroako Euskararen Kontseilua¹⁸ organo kolegiatua da eta Nafarroako Gobernurako aholkularitza, parte-hartze eta proposamen eginkizunak ditu hizkuntza normalizazioaren arloan, baina ez da azken lau urtean bildu; 2003ko ekainaren 27tik aurrera, zehazki. Eta, Kontseiluaren estatutuek ezarria dute sei hilean behin egin behar direla bilera arruntak. Nafarroako Gobernuak, gainera, Kontseiluko gehiengo ziurtatua du izendatze libreko izendapenen bitartez, bai eta Administrazioari berari dagozkion postuen bidez ere. Kontseiluaren ibilbidean ugari baino ugariago izan dira dimisioak eta gatazkak, harik eta Gobernuak kide berriz osatutako Kontseilua izendatzea erabaki zuen arte. Izendapen horiek haserrea eta protestak eragin zituzten euskararen normalizazioan ari diren eragile guztien artean.

¹⁸ Martxoaren 11ko 135/1996 Foru Dekretuaren azken xedapenetako bigarrena.

Nafarroako hainbat udalerritan euskararen normalizazioaren aldeko lanean ari diren teknikarien zerrendatuari dagokionez, esan behar da Nafarroako Gobernuak aurrekontuetako kontusaila murriztu egin diela azken urteotan, aurrekontua bere osoan handitu bada ere. Udalerriek berek eta Nafar Gobernuak batera finantzatzen dituzte euskararen normalizazioaren alde ari diren teknikariak; dena dela, azken 7 urte honetan, Gobernuak bere ekarria urritu egin du eta udalek murrizketa hori berdindu behar izan dute. 2005ean, % 53 jaitsi zen Nafarroako Gobernuak arlo horretara bideratutako dirua, eta % 11, hurrengo urtean.

3. Ministroen Batzordeak egindako gomendioak betetzea

Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak bi neurri zehatz gomendatu zituen Nafarroarako. Bata, ikuspegi egituratua hartzea, euskararen erabilera Nafarroako irrati eta telebista saioetan sustatzeko, eta bi, Kartaren III. zatiak euskarari ematen dion babesa eremu mistoan egokiro aplikatzeko aukera ahalbidetzea¹⁹.

4. gomendia: “ ... *ikuspegi egituratua har (dezatela), euskararen erabilera ...Nafarroako irrati eta telebista saioetan, oro har, sustatzeko*”.

Gomendioak betetzen ari direla frogatzeko, agintariek euskaraz aritzen diren komunikabideentzako laguntzen deialdiak aipatzen dituzte. Hori aski ez izateaz gain, ez da zuzena eta osagabea da.

Ez da aski, agintariek deialdi horretako laguntza berberak aipatu zituztelako Kartak Espainiako Estatuan zuen aplikazioari buruzko lehen txostenean; eta, orduko hartan, Adituen Lantaldeak esan zuen laguntza horiek ez zirela aski.

Ez da zuzena, laguntza horiek ez zaielako euskarazko komunikabideei ematen, euskara erabiltzen duten komunikabideei baizik, euskara noizbehinka, erabat edo aldi behin erabiltzen den kontuan hartu gabe. Horrela, hara zer gertatu den azken urteotan: euskara erabat eta etengabe erabiltzen duten komunikabide batzuk deialdi horretatik kanpo geratu dira, bai eta Gobernuaren laguntzetatik kanpo ere.

Osagabea da, agintariek arlo honetan garrantzi handi handia duten bi egoera aipatu gabe utzi dituztelako: batetik, Euskalerria Irratia, eta bigarrena, tokiko TB Digitalerako Plana.

¹⁹ Europako Kontseilua. Ministroen Batzordearen 3 RecChL gomendia (2005) Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Kartak Espainian izan duen aplikazioari buruz. (Ministroen Batzordeak 2005eko irailaren 21ean onetsia; ministroen ordezkarien 938. bileran, hain zuzen ere)

Euskalerrria Irratia²⁰ euskaraz ari da 1988tik aurrera, baina administrazioak atzera bota ditu irratiak lizentzia bat lortzeko egindako eskaerak guztiak. Lizentziarik ez izatearen ondorioz, komunikabide horrek ezin ditu nafar agintariak aldi behin ematen dituzten dirulaguntzak jaso, eta horrek publizitatearen mendean egotera behartzen du irratia. Irratiak afera auzitara eraman du eta, horretarako, argudiatu zuen lizentziak emateko azken prozesua ez zettorrela bat betebeharr juridikoekin. Auzitegietan zazpi urtez aritu ondoren, epaileek 1998ko lizentzia-banaketa balio gabe utzi eta arrazoia irratiari eman zioten²¹. 2006aren bukaeran-2007aren hasieran, epaiak beharturik, nafar agintariak lizentziak emateko prozesua errepikatu eta, berriz ere, irrati hori utzi dute kanpoan; horren ondorioz, komunikabideak berriro auzitegietara jo behar izan du²². Espero dezagun beste 7 urte itxaron behar ez izatea.

Tokiko TB Digitalerako Plan Teknologiko Nazionala²³. TB analogikoaren sistematik TB digitalera pasatzearekin, administrazio zentralak Tokiko Telebista Digitalerako Plan Tekniko Nazionala onetsi zuen 2004an, sektorea arautzeko. Planak 266 barruti ezarri ditu, eta horietako bost Nafarroarako dira; bat bera ere ez euskal eremurako. Eta gaur egun, bi TB lokal daude eremu horretan: Xaloa Telebista (1997) eta Ttipi-Ttapa Telebista (1998), hau da, Nafarroatik eta Nafarroarako euskara hutsez ari diren bi telebista bakarrak. Kate bakoitzak 16.000 ikusentzule ditu. Dena dela, erregulazio berria kontuan hartuta, eta barruti berri guztiak eremu euskaldunetik kanpo daudenez, bi Telebistek ez dute haien lana babestuko duen legezko esparrurik izanen eta administrazioak ez ditu aintzat hartuko. Beraz, lehenik eta behin, dirulaguntza publikoak ukatuko dizkiete eta laguntza horiek behar-beharrezkoak zaizkie, zerbitzua eskaintzeari eusteko. Beraz, Euskalerrria Irratiari gertatzen zaion gauza berbera da.

Gainera, Nafarroako Administrazioak onartutako baldintza-pleguetan esaten da bost barruti horietako bakoitzean arituko den telebistako programazioak

²⁰ Adituen Lantaldeak irrati horren egoera aztertu zuen Kartak Espainian izan zuen aplikazioari buruzko lehen Txostenean; 427. paragrafoetan eta hurrengoetan, zehazki.

²¹ Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Sala. 1140/2005 zenbakia duen epaia, abenduaren 22koa.

²² Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Sala. 221/2007 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

²³ 439/2004 Errege Dekretua.

gaztelaniaz izan behar duela; zehazki, Tokiko Telebista Digitalerako Plan Tekniko Nazionalak aurreikusi duen barrutietako lurraldeetan emititzeko lizentzia bat lortzeko lehian ari ziren enpresetarako baldintza-pleguak dira horiek²⁴.

5. gomendioa: *“aurreikus (dezatela)... III. Zatiak euskarari ematen dion babesaren eremu mistoan egokiro aplikatzeko aukera, Nafarroako legediak definitzen duenarekin bat”*.

Arestian adierazi dugun bezala, agintari espainiarrek diote, Nafarroako, Espainiako eta Europako legediarekin bat, Euro-karta eremu euskaldunari soilik aplikatu behar zaiola. Gure iritziz, interpretazio hori ez dator bat ezein agindurekin, ezta ezein legerekin ere, egungo Nafar Gobernuaren borondate politikoarekin baizik.

Euskarari buruzko Legea 1986an onetsi zenetik hona, hainbat saiakera egin dira huraxe aldatzeko, baina saio guztiak alferrekoak gertatu dira: zehazki, lehenbizikoa, 1992an izan zen²⁵, eta bigarrena, 1993an²⁶. Hurrengo urtean, 1994an²⁷, beste behin ere egon zen Euskararen legea aldatzeko saiakera, eta bi 1998an²⁸, baina aurreko guztiak bezala, alferrekoak gertatu ziren.

2004ko irailean, hizkuntza politikari buruzko ponentzia bat antolatu zen Nafarroako Parlamentuan, Euskararen Legea ebaluatzeko eta, bere kasuan,

²⁴ Kontzesio administratiboak kontratatzeko administrazio klausula partikularren eta ustiapenekoen agiriaren 18. oinarria, Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion bost barrutietan Tokiko telebista Digitaleko Zerbitzu Publikoa Kudeatzeko

²⁵ Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala; 1992ko azaroaren 24koa, 68. zenbakia

²⁶ Abenduaren 15eko Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea aldatzeko foru lege proposamena. Nafarroako Parlamentuko Sozialistak, Eusko Alkartasuna eta Mistoa-Ezker Batua parlamentuko taldeek aurkeztutakoa. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala; 1993ko azaroaren 18a, 45. zenbakia

²⁷ Abenduaren 15eko Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea aldatzeko foru lege proposamena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala; 1994ko apirilaren 21a, 23. zenbakia

²⁸ Abenduaren 15eko Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea aldatzeko foru lege proposamena. Convergencia de Demócratas de Navarra parlamentuko taldeak aurkeztua. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala, 1998ko maiatzaren 14a, 33. zenbakia eta Abenduaren 15eko Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea aldatzeko foru lege proposamena, Eusko Alkartasuna taldeko parlamentariak aurkeztua. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala, 1998ko irailaren 15a, 68. zenbakia.

aldatzeko. Gizarteko hainbat eragile, aditu eta agintari deitu zituzten ponentzia hartara. Agintarien esanak alde batera utzita, gizarte eragile nahiz aditu guztiek legea aldatu beharra adierazi zuten, aho batez adierazi ere²⁹. Dena dela, handik hilabete batzuetara, 2005eko apirilean, ponentzia bertan behar gelditu zen, PSNk eta UPNK lege-esparrua aldatu nahi izan ez zutelako.

Hilabete lehenago, bi alderdiek beren biltzarrak egin zituzten eta neurri hauek hartu zituzten euskarari eta hizkuntza politikari buruz. PSNren Batzorde Erregionala martxoaren 5ean egin zen eta *"El bilingüismo en Navarra, una realidad diferente, un hecho diferencial"* izenburuko agiria onetsi zuen. Agiriak alderdi horrek Euskararen Legeari buruz duen jarrera agertzen du, eta halaxe dio, besteak beste: **"Nafar sozialistok esan dugu eta diogu Nafarroak dituen gauza berezien artean, itun konstituzionalaren ondoriozko gure eredu instituzionalaz gain, eta konbenioan oinarritutako eredu ekonomikoaz gain, elebitasun partziala edo eremukoa ere badagoela.(...) Hori dela eta, ez dugu onartzen euskalduntze, berreuskalduntze, ezta hizkuntza normalizazioaren aldarrikapena; kontzeptu horiek gaindituak baitaude guretzat, eta batzuek erabiltzen ohi dituzte, Erkidego osoa hizkuntza murgilketan sartzeko egiten dituzten saiakerak justifikatzeko.** Gure iritziz, euskara normalizaziora iritsi da Nafarroara".

Handik egun batzuetara, UPNK hauxe adierazi zuen bere VII. Biltzarrean: "nolanahi ere, **ez litzateke hizkuntza normalizazioaz hitz egin beharko, normaltasun demokratikoa erabat lortzen ez den bitartean.** (....) UPN euskara sustatzearen alde dago, behin Konstituzioak babestuta dauden herritarren funtsezko eskubideak bermatu ondoren; esaterako, hezkuntza, berdintasuna, justizia, askatasuna, gizarte integrazioa eta aniztasuna"³⁰.

2006ko urrian, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza kontseilariak azterlan soziolinguistikoa aurkeztu zuen Nafarroako Parlamentuaren aurrean: azterlanaren arabera, Iruñerriko eremu ez-euskalduneko (17 udalerrri, guztira) herritarren % 71,7k eremu mistoan sartu nahi zuten, horrek zerikusia duelako

²⁹ Ikus Diario de Noticias 2004/09/16; 2004/09/23; 2004/09/30; 2004/10/07; Gara 2004/11/04.

³⁰ Normaltasun Demokratikoari eta Hizkuntza Normaltasunari buruzko ponentzia politikoa. UPNren VII. Biltzarra. 2005/03/13

euskarazko irakaskuntza eredia eskola publikoan ezartzeko aukerarekin eta beste aldaketa batzuekin: eraikinen errotulazioak, harrera zerbitzu publikoetan, etab³¹. Berehala etorri zen erantzuna. Biharamunean, gobernuburuak adierazi zuen ez zuela inongo asmorik Euskararen legea aldatzeko³². Bere aldetik, Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak irratiz esan zuen "inkestako % 71,7 hori lau herritako herritarren % 1,57ri dagokiola"³³, azterlan soziolinguistiko horretan erabil ziren laginei buruz ari zelarik. Azkenean, azterlana gorde eta udalerrien borondatea ez da aintzat hartua izan.

Beraz, Espainiako Txostenak nabarmentzen du egungo Nafar Gobernuoko Hezkuntza Departamentua eta Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia ahaleginean ari direla lurralde mugak gaur egungo hizkuntza egoerara egokitzeko³⁴; baina argi eta garbi esan behar da Txosten hori gezurretan dabilela. Eta, Euro-kartaren III. zatia eremu euskaldunean soilik aplikatu behar dela dioenean, ezkututzen du hori zor zaiola gezurra esan duen Gobernu beraren borondate politiko hutsari.

Gainerako gomendioak.

Ministroen Batzordearen beste gomendioak bete izanari dagokienez, gogoratuko dugu 1. eta 2. gomendioek esaten zutela behar adina langile kontratatu behar zirela Justizia Administrazioan, bai eta Nafarroan ari den Estatuaren Administrazioa ere; bada, Euro-kartako 9. eta 10. artikuluen betetze maila aztertzetik ondorioztatzen den bezala, esan beharra dago egoera ez dela deus ere aldatu Adituen Lantaldeak Kartak Espainiako erresuman zuen aplikazioari buruzko lehen txostena egin zuenetik. Nafarroako Justizia Auzitegietan itzulpen sistema hutsa erabiltzen da euskarazko zerbitzua bermatzeko; beraz, horrek frogatzen du ez dagoela euskaraz dakien behar adina langilerik. Beste alde batetik, euskaraz dakien langile bat dago telefonoa hartzeko, baina hori ez da inola ere nahikoa euskarazko harrera bermatzeko. Horrenbestez, guk uste dugu Nafarroako agintariek ez dituztela gomendio horiek bete.

³¹ Ikus Diario de Noticias 2006/10/11

³² Ikus Gara 2006/10/12

³³ Ikus Diario de Noticias 2006/10/12

³⁴ Euro-kartak Espainiako erresuman duen aplikazioari buruzko bigarren Toxstena: 88. or.

II. Zatia. EGHEKren 7. artikulua

7. artikulua. Helburu eta oinarriak.

1.- Erregio edo gutxiengoaren hizkuntzei dagokienez, hizkuntza horiek erabiltzen diren eskualdeetan eta hizkuntza bakoitzak bizi duen egoeraren arabera, kartagileek aurrera eraman nahi duten politika, legedia eta ekintzak helburu eta oinarrian araberakoak dira:

- a) erregio edo gutxiengoaren hizkuntzak onartzea, kultura-aberastasunaren erakusle dira eta;
- b) erregio edo gutxiengoaren hizkuntza bakoitzaren geografia-eremua errespetatzea. Hala, dagoeneko badiren edo sortuko diren administrazio banaketak erregio edo gutxiengoaren hizkuntzen sustapenean oztopo ez izatea lortuko da;
- c) erregio edo gutxiengoaren hizkuntzak sustatzeko benetako ekintzak burutzea;
- d) erregio edo gutxiengoaren hizkuntzak jendaurreko jardunean eta pribatuan ahoz zein idatziz erabil daitezen erraztu eta/edo sustatzea;
- e) karta honek hartzen dituen esparruetan, erregio edo gutxiengoaren hizkuntza bat erabiltzen dutenen eta hizkuntza bera edo antzekoa erabiltzen duten estatu bereko beste talde batzuen arteko harremanak mantendu eta garatzea. Baita estatuan beste hizkuntza batzuk erabiltzen dituzten beste talde batzuekiko kultura arloko harremanak finkatzea ere;
- f) erregio edo gutxiengoaren hizkuntzak maila guztietan irakatsi eta ikertzeko baliabideak eskaintzea;
- g) erregio edo gutxiengoaren hizkuntza baten eremuan bizi baina hizkuntza horretan hitz egiten ez dakitenek ikasi ahal izateko baliabideak jartzea, ikastea borondatezkoa bada ere;
- h) unibertsitate edo baliokideak diren tokietan erregio edo gutxiengoaren hizkuntzei buruzko azterketa eta ikerketak sustatzea;
- i) karta honek biltzen dituen arloetan, bi edo zenbait estatuan modu berean edo antzekoan hitz egiten diren erregio edo gutxiengoaren hizkuntzen arteko nazioarteko harreman egokiak sustatzea.

2.- Erregio edo gutxiengoaren hizkuntzak mantendu eta garatzea bultzatu ez eta arriskutan jarri asmoz, berauek erabiltzean sortutako arrazoirik gabeko bereizkeria, baztertze, muga edo lehenatasunei amaiera emateko konpromisoa hartu dute kartagileek, dagoeneko egin ez badute. Erregio edo gutxiengoaren hizkuntzetako hiztunen eta gainontzekoen arteko berdintasuna lortu asmoz edo hizkuntzan egoera berezia kontutan izan dadin hartutako aldeko neurri bereziak, ez dira indar handiagoko hizkuntzetako hiztunen kaltetan egindako bereizkeriatzat hartuko.

3.- Neurri egokien bidez, herrialdeko hizkuntza-talde guztien arteko elkar ulertzea sustatzeko konpromisoa hartu dute kartagileek eta hala, erregio edo gutxiengoaren hizkuntzak errespetatu, ulertu eta onartzea herrialdean ematen den hezkuntza eta prestakuntzaren helburuen artean izango da. Bestalde, komunikabide handiek helburu beraren bila jardun dezaten saiaturiko dira kartagileak.

4.- Erregio edo gutxiengoaren hizkuntzekiko politika zehazteaz batera, kartagileek hizkuntza horietako hiztunek adierazitako beharrian eta gurariak kontutan izateko konpromisoa hartu dute. Beharrezkoa baldin bada, erregio edo gutxiengoaren hizkuntzekin zer ikusia duten kontuez agintariei gomendioak emateko organoak sor ditzatela eskatzen zaie.

5.- Lurralderik gabeko hizkuntzei dagokienez, lehen lerroalditik 4.era artekoetan jasotako oinarriak "mutatis mutandis" ezartzeko konpromisoa hartu dute kartagileek. Hala ere, hizkuntza horiek direla eta, karta hau gauza dadin hartu beharreko neurrien ezaugarriak eta zenbaterainokoa modu malguan zehaztuko dira, beharrian eta nahiak kontutan izanda eta hizkuntza horietako hiztunen ohitura eta ezaugarriak errespetatuta.

Artikulu honetatik eratorritako konpromisoak agintari espainiarrek Nafarroan bete ote dituzten adierazterakoan, ez da inola ere nahikoa EGA ziurtagiria eta hezkuntza kurrikuluma aipatzea; bestalde, Estatu osoan ere egiten dena.

1.a) paragrafoa. Kultur aberastasuna.

Erregio edo gutxiengo hizkuntzei dagokienez, hizkuntza horiek erabiltzen diren eskualdeetan eta hizkuntza bakoitzak bizi duen egoeraren arabera, kartagileek aurrera eraman nahi duten politika, legedia eta ekintzak helburu eta oinarri araberakoak dira: erregio edo gutxiengo hizkuntzak onartzea, kultura-aberastasunaren erakusle dira eta.

Arestian ikusi dugu Nafarroako Gobernuan dagoen alderdi nagusiak, UPNk, hauxe adierazi zuela bere VII. Biltzarrean: "nolanahi ere, ez litzateke hizkuntza normalizazioaz hitz egin beharko, normaltasun demokratikoa erabat lortzen ez den bitartean"; beraz, euskara terrorismoarekin lotzen du zuzenean. PSNk, bere aldetik, hau da, Estatuko Gobernuan dagoen alderdiak, hauxe onetsi zuen bere biltzarrean: "ez dugu onartzen euskalduntze, berreuskalduntze, ezta hizkuntza normalizazioaren aldarrikapena". Bi jarrera horiek ez dira inola ere lagungarriak, euskara normaltzeko eta euskarari itzala emateko.

Expolangue Hizkuntzen eta Kulturen 24. edizioan, Nafarroako Gobernu gaztelania sustatzen aritu zen. Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak 2007rako eskatu zuen, "Espainia eta espainiar guztien hizkuntza, ohorezko herrialde eta hizkuntza gisa hartuak izateko"³⁵. Hitz erdirik ere, ordea, ez zuten esan euskarari buruz.

2007ko apirilean, hamabi urtez hainbat eta hainbat aldiz saiatu ondoren, Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUPeK) euskararen gaineko plan estrategikoa adostu zuen 2007-2009 urteetarako. Handik egun gutxira,

³⁵ Ikus Diario de Noticias, 2006/01/20.

Nafarroako Gobernuko Unibertsitateetarako zuzendari nagusiak "burugabekeria" iritzi zion Unibertsitateko Plan estrategikoari. Haren esanetan, "NUPeko sektore batzuk interesatuta daude Nafarroako Unibertsitate Publikoak Nafarroakoa izateari utz diezaion, Euskal Herriko Unibertsitateko luzapen hutsa izan dadin, eta NUP ez daiteke ezertan ere EHU bezalakoa izan"³⁶. Egun batzuk lehenago, José Javier Uranga -Ollarra- zutabegile, kazetari eta Diario de Navarra³⁷ egunkariko zuzendari ohiak hauxe idatzi zuen: "(Plan estrategikoa) gauzatzeak berekin ekarriko luke ikasleak (% 90, nafarrak) euskal nazionalisten eskuetan erortzea, bai eta Tontxu Camposen kulturen ere"³⁸. Idazkiari bukaera emateko, egileak hauxe dio: "Ez dugu zertan ordaindu gutxiengo batzuen apeta politikoa"³⁹. Handik astebetera, berriz ere heldu zion gaiari: "Nik uste dut nafar unibertsitario eta zergadun asko ez direla ados egonen Unibertsitateerako alferrikakoak diren gastuekin, unibertsitatearen funtsaren eta definizioaren beraren kontra doazelako. (*Euskara*) Batua politikoki zabaldu nahi duenak, ordain dezala, eta ikasi nahi duenak (ikusitugun bezala, oso gutxi dira) bere kontura ikas dezala. Unibertsitateak, gaur egun, beste eginkizun batzuk; esaterako, ikasleari nazioartean mugitzeko programak ematea, kanpoko ikasleekin harremanetan sar daitezten ahaleginduz: bereziki, mundu anglosaxoiarekin. Era berean, ikasleei irakaskuntza erabilgarria eta eraginkorra eman behar zaie, hizkuntzak ikasi behar dituzte, egun beharrezkoak baitira, herriko kanpandorretik urrun"⁴⁰.

2007ko maiatzeko hauteskundeetako emaitzak ikusita (euskal abertzaletasunak nabarmen gora egin zuen), kazetari horrek berak hauxe idatzi zuen: "Eskatzen dituzten gauza asko eman die UPNk (euskaldunei); batua dela, ikastolak direla, jaialdiak, korrikak eta ETBko poste ilegaletan"⁴¹. Handik gutxira, prentsan agertu zen Alderdi Popularraren Zuzendaritza Nazionalak egindako azterketa euskal

³⁶ Ikus Diario de Navarra, 26/04/2007.

³⁷ 100 urte baino gehiago dituen egunkari hori eragin handieneko komunikabidea da Nafarroan eta bigarren tokian dagoen komunikabideak (Diario de Noticias egunkariak) baino hiru aldiz gehiago saltzen du.

³⁸ Oharra: Tontxu Campos Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Kontseilaria da.

³⁹ Ikus Diario de Navarra, *La UPNA y el Batúa*, 2007/04/12.

⁴⁰ Ikus Diario de Navarra, *La UPNA y el Batúa (II)*, 2007/04/22.

⁴¹ Ikus Diario de Navarra, 13/05/2007.

abertzaletasunak hauteskundeetan izan zuen gorakada azaltzeko: lurralde horretan euskarazko hezkuntzak izan duen aurrerapena⁴².

Azken finean, Nafarroako Gobernuarentzat euskara ez da kultur aberastasuna eta ideia anexionistekin eta, are gehiago, terroristekin ere, lotzen du. Nafarroan zaila da euskara kultur aberastasun gisa tratatzea, nafar batzuekin soilik, eta ez guztiekin, identifikatzen jarraitzen den bitartean.

1.b) paragrafoa. Administrazio banaketak.

Erregio edo gutxiengo hizkuntza bakoitzaren geografia-eremua errespetatzea. Hala, dagoeneko badiren edo sortuko diren administrazio banaketak erregio edo gutxiengo hizkuntzen sustapenean oztopo ez izatea lortuko da .

Puntu honetan labur gogoratuko dugu hizkuntza eremuei buruz arestian esandakoa. Euskararen Legearen 5. artikuluan bilduta dauden herrien zerrenda ez da egin historia eta soziolinguistika arloko irizpiderik kontuan hartuta, ezta inolako irizpide zientifikorik kontuan hartuta ere; komenigarritasun politiko hutsaren araberrako banaketa da, Legea bera onesteko eztabaida saioan aitortu zen bezalaxe⁴³. Lurraldea eremutan banatzea eragin zuen LORAFNAREN 9. artikulua, gainera, Nafarroatik kanpo inposatutako egoera juridikoa izan zen⁴⁴ eta Nafarroako Parlamentuak 1980an adierazi zuen borondateari kontra egin zion⁴⁵: euskara Nafarroa osoan ofizial izatea erabaki zuen orduko hartan Nafarroako Parlamentuak.

Hizkuntza Gutxituen Europako Bulegoak (EBLUL) Nafarroa bisitatu ondoren egindako txostenean horrela mintzatu zen Nafarroako eremuz eremuko banaketaz "Eskualdeko botere betearazleak eta tokiko botere batzuk euskararen erabilerari buruzko legeak eman eta erabilera hori espazio geografiko jakin

⁴² Ikus El MUNDO 2007/05/30; Gara 2007/08/18.

⁴³ Nafarroako Parlamentuko Bilkuren Aldizkaria. I. Legealdia. 32. zk., 23. or. (115)

⁴⁴ Nafarroako Parlamentuko Bilkuren Aldizkaria. I. Legealdia. 30. zk., 19. or.

⁴⁵ Euskararen ofizialtasunari buruzko ebazpena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala; 1980ko azaroaren 18a, 34. zk.

batzuetara murrizten ari dira. Jarduera horrek antz handiagoa dauka Ghetto batekin, garapen- eta normalkuntza-politika batekin baino".⁴⁶

Eremuz eremuko banaketa oztoporik handiena da Euskarari buruzko Legeak nafar guztientzat ezarrita dituen helburuak lortzeko, eta helburuak hauek dira: Herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eginkor bihurtzeko tresnak zehaztea. Euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz. Euskararen erabilpena eta irakaskuntza bermatzea⁴⁷.

Aranguren ibarreko eta Elortzibarreko gurasoek salatu egin dute eremuz eremuko banaketak beren herrietan eragin duen egoera; izan ere, bi udalerrri horiek eremu ez-euskaldunean daude, eremu mistoaren ondo-ondoan, eta ez dute D eredurik. Gurasoen esanetan, Nafar Gobernuak ez du borondate politikorik arazoari konponbidea emateko: "...arazoa hortxe dago, izen propioak dituzten herritarrei eragiten dien egiazko arazoa: Asier, Ibai, Irati, Ángela... ez da kontu teorikoa. (...) Egia esan, animua galtzeko modukoa da Gobernuak duen jarrera ikustea. Hutsik dagoen etxera deitzea bezalakoa da, berdin-berdina, ez baitizute atea irekiko"⁴⁸.

Puntu honi bukaera eman baino lehen, gogora ekarri behar dugu Xaloa eta Ttipi-Ttapa telebisten babesik gabeko egoera; Tokiko TB Digitalerako Plan Teknologiko Nazionalak eragin du egoera hori⁴⁹. Araudi berriarekin batera, bost TB barruti ezarri dira Nafarroarako, barruti guztiak eremu euskaldunetik kanpo; horren ondorioz, bi telebista horiek ez dute legezko markorik izanen, babes juridikorik gabe geldituko dira eta administrazioak ez ditu aintzat hartuko. Beraz, izaera administratiboa duen oztopo berria sortu da; beste oztopo bat, euskara Nafarroan sustatzea trabatzen eta eragileak adorerik gabe uzteko.

⁴⁶ Hizkuntza Gutxituen Europako Bulegoak Nafarroan egindako bisitari buruzko txostena (bisita 2003ko martxoaren 28an egin zen).

⁴⁷ Euskarari buruzko 18/86 Legearen 1.2 artikulua

⁴⁸ Ikus Diario de Noticias 24/09/04.

⁴⁹ 439/2004 Errege Dekretua

Azaldutakoa gogoan, gure iritziz konpromiso hori ez da inola ere bete Nafarroan, egungo administrazio-banaketak, bai eta berriak ere, erabiliak baitira, herritarren borondatea eta ekimenak geldiarazteko.

1. c), d) paragrafoak. Sustapena

Erregio edo gutxiengoen hizkuntzak sustatzeko benetako ekintzak burutzea eta erregio edo gutxiengoen hizkuntzak jendaurreko jardunean eta pribatuan ahoz zein idatziz erabil daitezten erraztu eta/edo sustatzea.

Orain arte 7. artikulua betetzeari buruz esan dugun guztia nahikoa da, agintariak Nafarroan euskara sustatzeko izan duten borondatea nolakoa den argitzeko. Dena dela, 29/03 Foru Dekretutik ateratako datu batzuk gehiago erantsiko ditugu; dekretu horrek euskararen erabilera arautzen du Nafarroako Administrazio Publikoetan⁵⁰.

Egoitza eremu mistoan duten Nafarroako administrazio publikoen eta haiei lotutako zuzenbide publikoko entitateen zerbitzuek erabiltzen dituzten barne inprimakietan eta paperetan idazpuruak eta menbreteak gaztelaniaz idatziko dira⁵¹.

Egoitza eremu mistoan duten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko zerbitzuetatik eremu euskalduneko pertsona fisiko nahiz juridikoei igortzen zaizkien komunikazio eta jakinarazpenak gaztelaniaz eginen dira, non eta interesatuek espresuki euskara erabiltzea hautatzen ez duten, orduan ele bitan egin ahalko baitira⁵².

Egoitza eremu mistoan duten Nafarroako administrazio publikoen eta haiei lotutako zuzenbide publikoko entitateen bulego, langela eta egoitzetako

⁵⁰ Nafarroako Aldizkari Ofiziala. 19. zk., 2003/02/12

⁵¹ 13. artikulua. 29/03 FD

⁵² 15. artikulua. 29/03 FD.

errotuluak, paperen idazpuru eta menbreteak, zigilu ofizialak eta gainerako identifikazio nahiz seinalizazio elementuak gaztelaniaz idatzi beharko dira⁵³.

Egoitza eremu mistoan duten Nafarroako administrazio publikoak ez daude inolaz ere behartuta euskaraz jakitea nahitaezko kalifikatzera beren plantilletako lanpostuak bete behar dituztenean, euskara-gaztelania itzulpen lanekoetan izan ezik⁵⁴.

Eremu mistoan euskaraz jakitea merezimendu gisa baloratzen denean, halakotzat hartzen denean, balorazio hori ez da inoiz ere izanen frantsesa, ingelesa edo alemana jakiteagatik (Europako Batasunean erabilera ofiziala duten hizkuntzen artean) merezimendu gisa aplikatzen den puntuazioaren % 5 baino goragokoa; deialdi bakoitzean zenbateko zehatza adieraziko da⁵⁵.

Azkenik, Nafarroako herritar kopuruaren erdia erroldatua duen Iruñeko Udalak, UPNk osatutako Gobernu batzarraren bidez, 177 bide-seinale berri paratzea erabaki du hiriko hainbat tokitan. Bide-seinaleak hornitzeko lehiaketan hauxe dago zehaztuta: "hiriko norabideak adierazteko seinaleetan eta aluminiozko adierazleetan 100 tamaina erabiliko da gaztelaniarako, eta 70 tamaina berriz, euskararako"⁵⁶.

Azaldutakoa gogoan, gure iritziz konpromiso hori ez da Nafarroan betetzen ari.

7. artikulua 1.e) paragrafoa. Hizkuntza bera duten lurraldeekiko harremanak

Karta honek hartzen dituen esparruetan, erregio edo gutxiengoan hizkuntza bat erabiltzen dutenen eta hizkuntza bera edo antzekoa erabiltzen duten estatu bereko beste talde batzuen arteko harremanak mantendu eta garatzea. Baita estatuan beste hizkuntza batzuk erabiltzen dituzten beste talde batzuekiko kultura arloko harremanak finkatzea ere.

⁵³ 16. artikulua. 29/03 FD.

⁵⁴ 22. artikulua. 29/03 FD.

⁵⁵ 23. artikulua. 29/03 FD.

⁵⁶ Ikus Diario de Noticias, 2007/08/08. Espedientea: 2007/1, Iruñeko Udala.

Nafarroako Gobernuak, betebeharraren betekizunean, Europako Kontseiluari jakinarazi dio 1986tik aurrera elkarlanean ari dela Eusko Jaurlaritzarekin Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) kudeatzeko. Erantzun hori ez da nahikoa, are gehiago kontuan hartzen badugu Adituen Lantaldeak Kartari buruz egindako lehen Txostenean agintari eskudun guztiei "Euskadi eta Nafarroa arteko lankidetzaren indartzeko moduak aurkitzea" gomendatu zitzaizela "Kartan aurreikusitako esparruetan". 1986tik hona dagoenari eustea ez da indartzea.

Azken urteotan, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaren anatema politikoa da azken lurralde horretan. Izan ere, 2007ko apirilean, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak zirela eta, Nafarroako Gobernuburuak itun bat egitea eskaini zion Alderdi Sozialistari, nafar erakundeak euskal abertzaletasunaren aurka gotortzeko⁵⁷, Nafarroa Euskadiko Autonomia Erkidegoaren probintzia bihurtu ez dadin. 2007ko martxoaren 9an, Nafarroako Gobernuburuak, bere alderdi politikoak eta gobernuko beste taldeak soilik sostengaturik, manifestazio bat antolatu zuen lelo honekin: "Forua eta askatasuna. Nafarroa ez da negoziagai". Manifestazio horretan, izaera instituzionaleko manifestu bat irakurri zuen, hauexek exijitzeko: "Zer entzun nahi dugu nafarrok Zapatero presidentearengandik? Ba, argi eta garbi entzun nahi dugu Nafarroako Alderdi Sozialistak ez duela Gobernurik hitzartuko gure Komunitatearen erregimen instituzionala errespetatzen ez duten alderdi abertzaleekin; Nafarroa laugarren probintzia gisa Euskadiko Autonomia Erkidegoan txertatzea azken helburu gisa duten alderdiekin."⁵⁸

2007ko irailean, Eusko Jaurlaritzako sailburuorde Patxi Baztarrikak Euro-kartak EAEn izan duen aplikazioari buruzko bigarren Txostena aurkeztu zuen; aurkezpenean, sailburuordeak Nafarroako Gobernuari organo komun bat eratzea eskaini zion euskararen alde elkarlanean aritzeko, betiere "erabateko errespetu instituzionalean eta Erkidego bakoitzaren antolamendu juridiko eta administratiboetan oinarrituta, Patxi Baztarrikaren ustez "euskara, muga ororen

⁵⁷ Ikus Diario de Noticias eta Diario de Navarra, 2007/20/03.

⁵⁸ Sanz lehendakariak "Forua eta askatasuna. Nafarroa ez da negoziagai" manifestazioaren bukaeran 2007ko martxoaren 17a.

gainetik partekatzen dugun ondasuna delako"⁵⁹. Nafarroako Gobernuaren erantzuna Hezkuntza Kontseilariaren ezpainetatik iritsi zen: "Zalantzan jartzen dut, hark asmo ona izatea; baina, inolako zalantzarik gabe, formak erabat okerrak dira. Ezin da oker handiagorik egin. Ez dakit gizon hori Eusko Jaurlaritzan lurreratu den paraxutista bat ote den eta ez ote dakien nolako polemika izan den aurretik aipamen horren inguruan. Baina, une honetan organo komun iraunkorra eskatzeak, euskara hutserako bada ere, esan nahi du ez duela huraxe sortzeko inolako borondaterik, eta ia ausartu ere ausartuko nintzen esatera, probokazioa dela, opari pozondua"⁶⁰.

Mesfidantzari lotutako giro politiko horretan, bi erkidegoen arteko elkarlana indartu beharrean, ahuldu egin da. Adibidez, 2002ko urtarrilean, Nafarroako Gobernuak utzi zion Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan aritzeari eta Nafarroa Euskararen Mapa Soziolinguistikoa ez sartzea erabaki zuen; Nafar Gobernuak 1986tik aurrera ari zen mapa horretan parte hartzen.

Egoera horrela, eta eskasa bada ere, ez da batere harritzekoa agintariak euskararen gaitasun agiria aipatzea, betebeharrak hori betetzen ari dela justifikatzeko; izan ere, gaur egun Nafarroako Gobernuak ez du ia lankidetzarik euskara hitz egiten den beste erkidegoekin, inolako lankidetzarik ez duela ez esateagatik.

Azaldutakoa gogoan, gure iritziz konpromiso hori ez da Nafarroan betetzen ari.

7. artikulua 1.f), g), h), i) paragrafoa. Hizkuntza irakastea eta ikertzea.

Erregio edo gutxiengo hizkuntzak maila guztietan irakatsi eta ikertzeko baliabideak eskaintzea; erregio edo gutxiengo hizkuntza baten eremuan bizi baina hizkuntza horretan hitz egiten ez dakitenek ikasi ahal izateko baliabideak jartzea, ikastea borondatezkoa bada ere; unibertsitate edo baliokideak diren tokietan erregio edo gutxiengo hizkuntzei buruzko azterketa eta ikerketak sustatzea; karta honek biltzen dituen arloetan, bi edo zenbait estatuan modu berean edo

⁵⁹ Ikus Diario de Noticias 2007/09/14.

⁶⁰ Ikus Diario de Navarra 2007/09/14.

antzekoan hitz egiten diren erregio edo gutxiengoaren hizkuntzen arteko nazioarteko harreman egokiak sustatzea.

Agintari espainiarren txostenak ez du ezer ere esaten konpromiso horien gainean. Nafarroari dagokionez, eta oinarri harturik agintariak zer-nola interpretatzen duten Kartaren III. zatia, hau da, zati hori eremu euskaldunaren soilik dela aplikatzekoa, gure ustez agintariak informazioa eman beharko zuten gainerako hizkuntza eremuetan (mistoan eta ez-euskaldunaren) gertatzen denari buruz, Kartaren II. zatian dagokionez. Dena dela, agintariak hizkuntza eremu horiei buruzko informazioa ematen dute, eremu euskaldunarekin batera, III. zatian aplikazioari dagokion atalean. Zalantzarik gabe, horra hor berriz ere agerian agintariak esandakoaren eta errealitatearen arteko kontraesana.

Agintari espainiarrek bezalaxe, euskarazko irakaskuntzak Nafarroan duen egoerari buruzko informazioa emanen dugu Kartaren 8tik 14ra bitarteko artikuluek Nafarroan duten betetze mailari dagokion atalean; izan ere, herritarrei aitortutako eskubidea eta agintarientzako betebeharra da euskara, huraxe erabiltzea, huraxe ikastea, huraxe garatu eta babestea, eta eremu euskaldunaren mugak gainditzen ditu.

7. artikulua 1.i) paragrafoa. Nazioz gaindiko harremanak.

Karta honek biltzen dituen arloetan, bi edo zenbait estatuan modu berean edo antzekoan hitz egiten diren erregio edo gutxiengoaren hizkuntzen arteko nazioarteko harreman egokiak sustatzea.

Aurreko konpromisoarekin bezala, eta agintari espainiarrek egin duten moduan, puntu honetaz arituko gara Kartaren 8tik 14ra arteko artikuluen betetze mailari dagokion atalean.

7. artikulua 2) paragrafoa. Diskriminazio positiboa

Erregio edo gutxiengoaren hizkuntzak mantendu eta garatzea bultzatu ez eta arriskutan jarri asmoz, berauek erabiltzean sortutako arrazoirik gabeko bereizkeria, baztertze, muga edo lehentasunei amaiera emateko konpromisoa hartu dute kartagileek, dagoeneko egin ez badute. Erregio

edo gutxiengoan hizkuntzetako hiztunen eta gainontzekoen arteko berdintasuna lortzeko asmoz edo hizkuntzan egoera berezia kontutan izan dadin hartutako aldeko neurri bereziak, ez dira indar handiagoko hizkuntzetako hiztunen kaltetan egindako bereizkeriatzat hartuko.

Inolako zalantzarik gabe, Nafarroan ez da betetzen agintari espainiarrek 2.2 artikulua bidez hartutako konpromisoa.

Lurralde honetako hizkuntza zonifikazioa bidegabeko bereizkeria da euskararen praktikaren gainean eta horren emaitza da euskarari estimulua kentzea edo euskararen iraupena edo garapena arriskuan jartzea. Arestian adierazi dugun bezalaxe, eremuz eremuko banaketa ez da inolako irizpide objektiboren arabera egin, irizpide politikoa kontuan hartuta baizik. Aldi berean, Nafarroako herritar guztiei berdintasunezko tratua ematea eragozten du zonifikazio horrek, hizkuntza dela kausa. Horrela, eremu ez-euskaldunean, berariazko eskaria badago ere, galarazia dago sistema publikoan euskaraz ikastea; eremu euskaldunetik kanpo, bide-seinale gehienak gaztelania hutsez daude; administrazioaren arabera, ez da derrigorrezkoa eremu mistoan euskarazko zerbitzu publikoa bermatzea, nahiz eta eremu horretan zerbitzu publikoen % 95 zentralizatuak egon, etab. Horrenbestez, Nafarroako hizkuntza zonifikazioaren diseinuak Kartaren 7.2 artikulua urratzen du, gaur egun zonifikazio hori indarrean dagoen bezala.

Gainera, oraindik ez da euskararen aldeko neurri berezirik hartu, eta oraindik ere, neurri horiek erdaldunenganako bazterkeriatzat jotzen dituzte. Izan ere, UPN aspaldian ari da ideia hau zabaldu nahian: euskararen normalizazioaren xedea da gehiengo erdaldunaren eskubideak ukatzea eta gutxiengoari pribilegioak ematea; esaterako, administrazio autonomikoko lanpostuetan sartzera⁶¹. PSNk, bere aldetik, ez du onartzen *euskalduntze*, *berreuskalduntze* eta *hizkuntza normalizazioa* kontzeptuak aldarrikatzea, haren esanetan kontzeptu horiek "gaindituak daudelako eta batzuek erabiltzen ohi dituzte, Erkidego osoa hizkuntza murgilketan sartzeko egiten dituzten saiakerak

⁶¹ Ponentzia politikoa: Normalidad Democrática y Normalización Lingüística. UPNren VII. Biltzarra. 2005/03/13

justifikatzeko⁶². Bi alderdien artean, Nafarroako Parlamentuko jarlekuen % 65 dute.

Era berean, ikusi dugu zer esan zuen Unibertsitateetarako zuzendari nagusiak Nafarroako Unibertsitate Publikoko 2007-2009 urteetarako Euskararen Plan Estrategikoa unibertsitate horretan onetsi eta gutxira (oso lanabes garrantzitsua, euskara Nafarroan normaltzen laguntzeko): "burugabekeria" zela. Halaber, Nafarroako hedapen handieneko komunikabidean haxe esan zen plan horren gainean, arestian ikusi bezala: "ez dugu zertan ordaindu gutxiengo batzuen apeta politikoa" ⁶³.

Azkenik, *British* Eredua deritzona aipatu behar dugu. Aldez aurretik deus jakinarazi gabe sortutako hezkuntza eredia da, Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak eta Nafarroako Eskola Kontseiluak hari buruz inolako txostenik egin gabe; bada, Hezkuntza Departamentuak, bere kasa, bultzatu eta ezarri duen eredia da eta ingelesa klaseen % 30etik % 40ra irakas-hizkuntza gisa erabiltzean datza. Eredu honek erakargarriago egin nahi ditu bi eredu publiko: batetik, A eredia (gaztelaniazko irakaskuntza eta euskara irakasgai gisa) eta G (gaztelania hutsezkoa), "deprimituenak eremu mistoan eta euskaldunean"⁶⁴. Bada, eredu horrek munta handiko arazoa dakar, euskara eta ingelesa lehian jartzen dituelako. Horrela, Nafarroako hezkuntza sisteman, euskara eta/edo gaztelania ikasteko aukera izatetik gaztelania eta ingelesa edo gaztelania-euskara jakiteko aukerara pasatu gara, baina ez dago euskara, ingelesa eta gaztelania ikasteko aukerarik; ez, behintzat, sistema publikoan. Ingelesa D ereduko irakas-hizkuntza gisa baztertzearen bidez eta gaztelaniarekin soilik eskaintzearen bidez, gaztelaniari lotutako hezkuntza eredia indartu nahi dute, eta horren ondorioz, euskararen normalizazio prozesuaren kaltetan doa, euskara ingelesarekin lehian jartzean.

Beraz, konpromiso hori betetzeko, bide luzea egin beharko da Nafarroan.

⁶² "El bilingüismo en Navarra, una realidad diferente, un hecho diferencial" agiria, PSNren Batzorde Erregionalak 2005eko martxoaren 5ean onetsia.

⁶³ Ikus Diario de Navarra, *La UPNA y el Batúa*, 2007/04/12.

⁶⁴ Nafarroako Gobernuako Hezkuntza kontseilariak esandakoa. Ikus Diario de Noticias 2007/09/01

7. artikulua 3) paragrafoa. Elkar ulertzea eta tolerantzia.

Neurri egokien bidez, herrialdeko hizkuntza-talde guztien arteko elkar ulertzea sustatzeko konpromisoa hartu dute kartagileek eta hala, erregio edo gutxiengo hizkuntzak errespetatu, ulertu eta onartzea herrialdean ematen den hezkuntza eta prestakuntzaren helburuen artean izango da. Bestalde, komunikabide handiek helburu beraren bila jardun dezaten saiatuko dira kartagileak.

Puntu honetan, agintari espainiarrek meritu gisa aipatzen dituzte Espainiako erresuma barneko hizkuntza barietateari eta nazionalari buruz Estatuaren hezkuntza-curriculum orokorrean bilduta dauden datuak. Berezko hizkuntza eta berezitasun historikoari eta kulturalari buruzko hezkuntza-curriculumak prestatzeko eskumena dituen erkidegoan, hori ez da inola ere nahikoa. Nolanahi ere, agintariek nekez aipa zitzaketan datu gehiago, ez baitago.

Aitzitik, aurreko puntuetan adierazitako egoerak ikusita, argi esanen dugu konpromiso hau ere ez dela betetzen.

7. artikulua 4) paragrafoa. Bizilagunen borondatea aintzat hartzea.

Erregio edo gutxiengo hizkuntzekiko politika zehazteaz batera, kartagileek hizkuntza horietako hiztunek adierazitako beharrian eta gurariak kontutan izateko konpromisoa hartu dute. Beharrezkoa baldin bada, erregio edo gutxiengo hizkuntzekin zer ikusia duten kontuez agintariei gomendioak emateko organoak sor ditzatela eskatzen zaie.

Nafarroan partaidetza bide bakarra dago, hots, Nafarroako Euskararen Kontseilua⁶⁵, organo kolegiatua da eta Nafarroako Gobernurako aholkularitza, parte-hartze eta proposamen eginkizunak ditu hizkuntza normalizazioaren arloan. Administrazioako zenbait kidez, gizarteko hainbat kidez eta Nafarroako Gobernuak zuzenean izendatutako zenbait pertsonaz osatua dago. Legez, sei hilean behin bildu behar du, baina ez da azken lau urtean bildu. Nafarroako

⁶⁵ 135/1996 Foru Dekretua, martxoaren 11koa

Gobernuak, gainera, haren araudia aldatu zuen⁶⁶, izendatze libreko izendapenen bitartez, bai eta Administrazioari berari dagozkion postuen bidez ere, Kontseiluan gehiengoa ziurtatzeko.

Gure iritziz, konpromiso honen aplikazioa indartu behar da Nafarroan.

⁶⁶ 211/2002 Foru Dekretua, urriaren 7koa

III. Zatia. EGHEKren 8tik 14ra arteko artikulua

Gogoratuko dugu zer esaten duten agintari espainiarrek beren bigarren Txostenean: Kartaren III. zatia, hau da, 8tik 14ra arteko artikulua, Nafarroako eremu euskaldunean soilik direla aplikatzekoak. Dena den, 8. artikulutik eta hurrengoetatik eratorritako betebeharrak betetzeari dagokionez, Nafarroari buruz emandako informazioan eremu euskaldunetik kanpoko datuak eta aipamenak ematen dira kasu guztietan. Gure iritziz, kontraesan hori zonifikazioaren zentzugabekeriaren eta bere izaera politikoaren ondorioa da.

Espainiako Erresumak aurkeztutako Txostenean bezala, 8. artikulua eta hurrengo aplikazioari buruzko gure azterketetan, erreparatu egingen diegu eremu euskaldunetik kanpo gertatzen diren egoerei; eta ez bakarrik Espainiako Txostenak halaxe egiten duelako, baizik eta euskara eta euskaldunak eremu horretatik haratago errealitate soziala eta legala direlako, eskubideak eta betebeharrak barne.

EGHEKren 8. artikulua. Irakaskuntza

8. artikulua. Irakaskuntza.

1.- Irakaskuntzaren arloan, hizkuntza horiek erabiltzen diren lurraldeari dagokionez, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera eta estatuko hizkuntza ofizialaren edo ofizialen irakaskuntzaren kaltetan gabe, agirigileek honako konpromisoak hartu dituzte:

a) -eskolaurreko heziketa kasuan kasuko erregio edo gutxiengoan hizkuntzetan burutzea ziurtatzea, edo

b) - lehen heziketa kasuan kasuko erregio edo gutxiengoan hizkuntzetan burutzea ziurtatzea, edo

c) - bigarren heziketa kasuan kasuko erregio edo gutxiengoan hizkuntzetan burutzea ziurtatzea, edo

d) - heziketa teknikoa eta lanbide-heziketa kasuan kasuko eskualde mailako edo gutxiengoan hizkuntzetan burutzea ziurtatzea, edo

goi mailako irakaskuntza finkatzean estatuak izan dezakeen eragina dela eta, lehen bi azpiartikuluak ezin bete izango balira, unibertsitateko edo goi mailako beste irakaskuntza mota batzuk erregio edo gutxiengoan hizkuntzetan burutu daitezen bultzatu eta/edo baimentzea;

-

f) - helduen heziketa edo etengabeko heziketa neurri handi batean edo erabat erregio edo gutxiengoan hizkuntzetan burutzeko ikastaroak eskain daitezen beharrezko erabakiak hartzea, edo

g) - erregio edo gutxiengoan hizkuntzek adierazten duten historia eta kultura irakatsi ahal izateko erabakiak hartzea;

h) Zati honen bidez onartutako a)tik g)ra arteko lerro-aldietan esaten dena indarrean jartzeko, irakasleek beharrezko hasierako eta etengabeko prestakuntza jaso dezatela ziurtatzea;

i) erregio edo gutxiengoan hizkuntzen irakaskuntza finkatu edo garatu asmoz hartutako neurrien eta izandako aurrerakuntzen jarraipena egiteko, ikuskaritza-organo bat edo beste sortzea eta gai horien inguruko txostenak egitea aldian-aldian. Txosten horiek jendaurrean jarriko dira.

2.- Irakaskuntzaren arloan, erregio edo gutxiengoan hizkuntzak aspaldidanik erabiltzen diren eskualdetatik kanpo dauden lurraldeei dagokienez, irakaskuntzaren garai egokietan erregio edo gutxiengoan hizkuntzak edo hizkuntzetan irakatsi ahal izatea baimendu, sustatu edo finkatzeko konpromisoa hartu dute kartagileek, erregio edo gutxiengoan hizkuntzaren hitzun kopuruak hala jardutea bidezko egiten badu.

Atarikoak.

Estatuaren Txostenak, hasteko, eremu euskalduna hartu du aztergai, 8. artikuluari dagokionez⁶⁷, nahiz eta Txostenak aipatzen dituen hezkuntza ereduak Nafarroa osoan legez eskaintzen diren, D ereduak kenduta; eremu ez-euskalduneari ez baitago D eredurik. Interes politiko hutsarengatik lotu ditu Txosten ofizialak eskolaurreko hezkuntza eta derrigorrezko irakaskuntza eremu euskaldunarekin. Izan ere, euskarazko hezkuntza aipatu eremuaz haratago aurreikusia dago legez eta eremu horretaz haratago ere ofiziala da, foru antolamenduaren arabera. Euskarazko irakaskuntzak legezko estaldura dauka Nafarroa osoan; eremu euskalduneari eta mistoan, D ereduaren bidez, eta eremu ez-euskalduneari, forma itunduaren bidez, ikastolei esker.

Horrela, Nafarroako lege-esparruak euskarazko irakaskuntza Nafarroa osoan aitortzen eta babesten badu ere, agintariak Kartaren aplikazioa eremu euskaldunera soilik mugatzen dute. Gure iritziz, hori iruzur hutsa da, Kartak dakarren babesa eremu euskaldunetik kanpo ere zabaldu behar delako; bestela, Euskararen Legeak aitortzen dituen eskubideak mugatzeko iragazki gisa erabiltzen ari da Euro-karta.

Espainiako Txostenak berak eremu euskaldunetik kanpoko informazioa ematen digu, bai unibertsiitate kontuez, bai eta helduen irakaskuntzan hartutako betebeharez mintzatzerakoan ere; horrek arrazoia ematen digu.

1.a) paragrafoa. Eskolaurreko heziketa

Eskolaurreko heziketa kasuan kasuko erregio edo gutxiengoan hizkuntzetan burutzea ziurtatzea, edo eskolaurreko heziketaren zati garrantzitsu bat kasuan kasuko erregio edo gutxiengoan hizkuntzetan burutzea ziurtatzea, edo aurreko bi puntuetako bat betetzea beren gurasoek hala nahi dute ikasleekin behintzat, ikasle kopurua behar bestekoa baldin bada, edo herri-agintariak eskolaurreko heziketan zuzeneko aginpiderik ez baldin badute, lehen bi puntuetan oharmandako neurriak bete daitezela lagundu edo/eta bultzatzea;

⁶⁷ Kartak Espainiako erresuman duen aplikazioari buruzko bigarren txostena; 153. or.

Espainiako Txostenak ez du horri buruzko deus esaten Nafarroari dagokionez. Nafarroako Foru Komunitatean legezko hutsunea dago 0-3 urteko haur eskolei dagokienez. Ez dago foru araudi zehatzik gai honetan, Nafarroan horrelako eskolak sortzean kontuan hartu behar diren irizpideak zedarritzeko eta adierazteko. LORAFNaren 47. artikulua dio hezkuntza Nafarroako eskumenean dagoela oso-osorik. Hori abiapuntu harturik, kasuan kasuko hitzarmenak egin dira toki administrazioen eta foru gobernuaren artean, herritarren beharrak asetzeko.

Gure aldetik, eremu euskaldunean zer gertatzen den aipatuko dugu (egoera zehatz batzuk), baita eremu mistoan zer gertatzen den ere, azken horretan ere legezko estaldura duelako.

Oloki eremu euskalduneko herria da eta guraso gehienek euskarazko hizkuntza eredia eskatu zuten 2006an⁶⁸; udalerriko (Esteribar) agintariak, ordea, zerbitzuak gaztelania hutsez ematen dituen haur eskola ireki dute. Esteribarko zerbitzuen mankomunitateak egindako txosten teknikoan⁶⁹ esaten da eskolak zerbitzu hori euskaraz ere bermatu beharko lukeela. Herriko auzokideek, bere aldetik, protesta egin zuten Udalak hartutako erabakiaren aurka eta, udal erregistroaren bidez, euskarazko lerroa irekitzea eskatu zuten⁷⁰. Baina halakorik batere ez da aski izan udal agintarientzat eta, gaur egun, eskolak gaztelania hutsez ematen ditu zerbitzuak.

Iruñea Komunitateko hiriburua da eta eremu mistoan dago; udalak onetsia du euskara udalerrian erabiltzeko eta sustatzeko ordenantza bat⁷¹. Ordenantzaren 26. artikulua halaxe dio: "Haur Eskolak hedatzeko plan orokorraren barruan, euskarazko haur irakaskuntzarako eskaerak aintzat hartuko dira, ahal den modurik hoberenean bermatuz gurasoek euren seme-alabendako hizkuntz eredia hautatzeko duten eskubidea".

⁶⁸ 2006-07 ikasturteko lehen hezkuntzako datuen arabera, gurasoen % 89,16k D eredia aukeratu dute; euskarazko eredia, alegia.

⁶⁹ Ollokiko Haur Eskolari buruzko Txosten teknikoa. 2006/05/25

⁷⁰ Esteribarko Udala; erregistroko sarrera zenbakia: 1545. 2006/09/12

⁷¹ Nafarroako Aldizkari Ofiziala; 122. zenbakia. Data: 1997/10/10

2003an, UPN agintean zegoen hiriburuko Udalean; bada, Udalak Arrotxapea auzoan ingelesezko hizkuntza ereduko haur eskola irekitzea erabaki zuen, eta ez zegoen aurretik inolako eskaririk hartarako. Aldiz, guraso askok eskatua zuten euskarazko haur eskola jartzea, eta Udalak bazuen horren berri; hiru bideotatik, gainera.

- Haur Eskoletarako eskariak Iruñean: Txostena. Gregorio Urdaniz, Iruñeko Udaleko soziologoa. 2001eko abenduaren 17a.
- Zundaketa soziologikoa, Haur Eskoletako aurrematrikulazio garaian egindakoa. Justo de La Cueva, soziologoa. 2003ko martxoa.
- Nafarroako Arartekoaren 03/269 zenbakiko espedientea.

Dena dela, eskaria izanda ere, eta udal ordenantzaren legezko agindua bazegoen ere, eskola ingelesez ireki zen. Handik hiru urtera, 2006an, gauza bera gertatu da hiriko beste auzo batean⁷². Horrela, azken 5 urtean, bi haur eskola ireki dira Iruñean, bi-biak ingelesezkoak, nahiz eta gizarte eskariak eta legezko aginduak⁷³ euskaraz irekitzera behartzen zuten.

Agoitz ere eremu mistoan dago eta, guraso gehienek euskarazko haur eskola irekitzeko eskatu duten arren, eskola ireki da bai, baina gaztelania hutsez⁷⁴.

Azaldutakoa gogoan, gure iritziz konpromiso hori ez da Nafarroan betetzen ari.

8. artikulua 1.b), c) paragrafoak. Lehen eta Bigarren heziketa.

Lehen heziketa kasuan kasuko erregio edo gutxiengo hizkuntzetan burutzea ziurtatzea, edo lehen heziketaren zati garrantzitsu bat kasuan kasuko erregio edo gutxiengo hizkuntzetan burutzea ziurtatzea, edo lehen heziketaren esparruan, kasuan kasuko erregio edo gutxiengo hizkuntzetan irakastea curriculumaren ataletako bat izan dadin

⁷² Ikus Diario de Noticias, 2006/08/04.

⁷³ Iruñeko udalaren esparruan euskararen erabilpena eta sustapena arautzen dituen ordenantzaren 26. artikulua.

⁷⁴ Ikus Diario de Noticias, 2006/04/09

ohartematea, edo aurreko hiru puntuetako bat betetzea beren gurasoek hala nahi duten ikasleekin behintzat, ikasle kopurua behar bestekoa baldin bada; bigarren heziketa kasuan kasuko erregio edo gutxiengoan hizkuntzetan burutzea ziurtatzea, edo bigarren heziketaren zati garrantzitsu bat kasuan kasuko erregio edo gutxiengoan hizkuntzetan burutzea ziurtatzea, edo bigarren heziketaren esparruan, kasuan kasuko erregio edo gutxiengoan hizkuntzetan irakastea curriculumaren ataletako bat izan dadin ohartematea, edo aurreko lehen hiru puntuetako bat betetzea hala nahi duten ikasleekin-edo, bestela, gurasoek nahi dutenekin- ikasle kopurua behar bestekoa baldin bada;

Arestian esandakoa azpimarratuko dugu. Nafarroan, euskarazko hezkuntza legez aitortua dago eremu euskaldunaren mugez haratago. Errealitate soziala da Nafarroa osoan, eta horren aplikazioa aipatu eremura mugatzeak Kartak dakarren babesetik kanpo uzten ditu Nafarroako herritar gehienak.

Eremu mistoan, etengabea da D ereduarekiko (euskarazkoa) aurreikuspenik eza. Behin eta berriz ikastoki arazoak gertatzen dira. Horrela, hiriburuko Arrotxapea, Ezkaba eta Mendillorri auzoetan, bai eta udalerrri batzuetan ere (esaterako, Orkoienen), etengabeak izan dira gurasoen protestak, behar adina ikastokirik ez dagoelako eta administrazioak egoera konpondu ez duelako; horrek behartuta, gurasoek, manifestazioak egin dituzte, lokalak okupatu dituzte, etab., euskarazko ikasgela berriak zabaltzea lortzeko, eskaria asetze aldera⁷⁵.

Eremu ez-euskaldunean, euskarazko eredia zilegi da, baina itunen bidez eta Ikastolen bitartez. Hau da, eremu horretako gurasoek seme-alabek euskaraz ikastea nahi badute, irakaskuntza pribatuaren aukera besterik ez dago, horrek gurasoei dirutan dakarkien ahaleginarekin, ez baitago hori guztien eskumenean. Karga horri aurre egin beharrak ez badu 8. artikulua urratzen, gure iritziz gutxienez esan behar da ez duela betetzen 7.1.c eta f artikulua, ezta 7.2 artikulua ere.

⁷⁵ Ikus Diario de Noticias, 2007/06/14; 2007/06/13; 2006/09/06

Administrazio autonomikoak ez du Nafarroan hezkuntza ereduari buruzko informazio kanpainarik antolatzen, hau da, ez du argibiderik ematen gurasoek aukeran dituzten hizkuntza ereduari buruz. Estatu osoko batez bestekoaren gaineko proportzioan etorri dira etorkinak Nafarroara bizitzera; etorkin ia guztiak euskararik gabeko eruedetan matrikulatzen dira eta ez horrenbeste haiek aukeratuta, zer eskaintzen den ez dakitelako baizik.

G ereduaren beherakada geldiarazteko erabili du Administrazioak etorkinen etorrera. Dena dela, eutsi egin zaio beheranzko joerari eta, orain, G eredia *British* delako ereduaren bidez indartu nahi dute⁷⁶. Hezkuntza Departamentuak, bere kasa, bultzatu eta ezarri duen eredia da eta ingelesa klaseen % 30etik % 40ra irakas-hizkuntza gisa erabiltzean datza. Gainontzekoa gaztelania hutsez da. Azken finean, D eredia bezalakoa, baina euskararen ordean ingelesa sartu dute. Dena den, *British* eredia Nafarroa osoan eskaintzen da eta D eredia, aldiz, eremu euskaldunean eta mistoan.

Aukera berri horren bidez, Nafarroako Gobernuak euskarari balioa kentzen dio zeharka, kalte egiten dio euskararen izen onari eta lehian jartzen du euskara ingelesarekin. Beraz, ingelesezko heziketa ere jaso nahi duenak euskara bazter utzi beharko du; inolako zalantzarik gabe, hori bidegabekeria handia da, makabroa ez esateagatik.

Ez da egoera hori ulergarri egiten, ez bada euskararen kontrako borondatean oinarriturik; are gehiago, ingelesezko murgilketak euskara zokoratzea eskatzen ez duenean, ikastolek ederki frogatu duten bezala. Beraz, nafar agintariek berehalakoan zuzendu beharko lukete agertoki hori, ingelesezko murgilketa euskararekin batera eskaintzeko. Bestela, Nafarroan euskarazko irakaskuntzaren aurkako estrategia abiaraztea da, horrek hizkuntza horrentzat izanen dituen ondorio larriak barne.

⁷⁶ "Krisian daude gaztelaniazko eredia (G) eta euskara irakasgai gisa duen gaztelaniazko eredia (A) sare publikoan, eta eredu mistoan eta euskaldunean. Irudimenez jokatu eta eredu erakargarriak eskaini behar ditugu, hau da, gaztelania eta ingelesa konbinatu, matrikula erakartzeko. Abian jarri diren *British* ereduko esperientziak arrakastatsuak izan dira." CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA. HEZKUNTZA KONTSEILARIA. Diario de Navarra 2007/09/03.

Era berean, ez da ulergarri egiten euskara Nafarroa osoko berezko hizkuntza izanik, lurralde osoan ikasi ezin izana, eta ingelesa, aldiz, bai. Bidegabeko bazterkeria hori ez daiteke inola ere Kartaren aterkiaren babespean onartu.

Azaldutakoa gogoan, gure iritziz konpromiso horiek ez dira Nafarroan betetzen ari; era berean, gure ustez, Europako Kontseiluko Adituen Lantaldeak begirada berezia egin beharko lioke *British* ereduaren bidez abiarazitako estrategia baztertzaileri, horrek euskararen normalizazioan ondorio larriak dakartzalako.

8. artikulua 1.d) paragrafoa. Lanbide Heziketa.

Heziketa teknikoa eta lanbide-heziketa kasuan kasuko eskualde mailako edo gutxiengoan hizkuntzetan burutzea ziurtatzea, edo heziketa teknikoaren eta lanbide-heziketaren zati garrantzitsu bat kasua kasuko erregio edo gutxiengoan hizkuntzetan burutzea ziurtatzea, edo heziketa teknikoaren eta lanbide-heziketaren esparruan, kasuan kasuko erregio edo gutxiengoan hizkuntzetan irakastea curriculumaren ataletako bat izan dadin ohartematea, edo aurreko lehen hiru puntuetako bat betetzea hala nahi duten ikasleekin-edo, bestela, gurasoek nahi dutenekin ikasle kopurua behar bestekoa baldin bada;

Konpromiso hori ez da inola ere betetzen Nafarroan. Arrazoiak argi daude, behin Espainiako Txostena irakurrita. Horrela, 172. orrialdean, hauxe dio: "lanbide heziketan ez dago hizkuntza eredurik, helburu nagusia ez baita hizkuntza bat ikastea edo perfektionatzea, lanbide kualifikazio ezin hobe bat lortzea baizik". Funtzio publikoan eta Unibertsitatean sartzeko gertatzen den bezala, Gobernuak elkarren kontra jartzen ditu profesional onak sortzea eta aukeratzea, eta euskara baloratzea eta erabiltzea. Horrek agerian jartzen du agintarientzat euskara kontu osagarria dela eta ez nagusia. Kartaren konpromiso bat ez betetzeko aitzakia gisa, profesional onak lortu nahi direla, eta ez euskaraz dakiten profesionalak, esateak erabat kontra egiten die Kartaren azalari eta mamiari.

Azaldutakoa gogoan, gure iritziz konpromiso hau ez da Nafarroan betetzen ari.

8. artikulua 1.e) paragrafoa. Unibertsitatea

Unibertsitateko edo goi mailako beste ikasketa batzuk erregio edo gutxiengoan hizkuntzetan burutzea ohartematea, edo - hizkuntza horiek ikertzea unibertsitateko edo goi mailako irakaskuntzako ikasgaiak izan

daitezen oharremate, edo - goi mailako irakaskuntza finkatzean estatuak izan dezakeen eragina dela eta, lehen bi azpiartikuluak ezin bete izango balira, unibertsitateko edo goi mailako beste irakaskuntza mota batzuk erregio edo gutxiengoan hizkuntzetan burutu daitezen bultzatu eta/edo baimentzea;

Nafarroan hiru Unibertsitate daude:

Nafarroako Unibertsitate Publikoa ⁷⁷. Nafarroako Unibertsitatea⁷⁸. Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala⁷⁹.

Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala, (UNED). Administrazio zentralaren mendean dago eta bi zentro elkartu ditu; bata, Iruñean, eta bestea, Tuteran. Bi zentroetan ez dago euskarazko eskaintzarik eta zerbitzurik batere, ez administrazioan ez irakaskuntzan. Filologia Hispanikoaren barnean aukerazkoa da euskarazko bi ikasturte egitea; hori besterik ez.

Nafarroako Unibertsitatea (UN). José María Escrivá de Balaguerrek 1952an sortutako Unibertsitate pribatua da eta *Opus Dei* erakundeari lotua dago. 1963az geroztik, Euskara eta euskal kulturaren katedra dago⁸⁰ eta holako gauzak antolatzen ditu: euskarazko kazetaritza jardunaldiak, kultur bisitaldiak, mintzaldiak. Era berean, Filologia Hispanikoaren ikasketetan, Euskara irakasgai bi daude 1970etik aurrera. 1996tik aitzinera, Euskara irakasgaiez gain, irakasgairen bat euskaraz ematen hasi dira; esaterako, Eusko Ikaskuntzen mintegi batzuk eta Euskal Linguistika. Lizentziatura guztietako ikasle orok du irakasgai horiek ikasteko aukera, osaera libreko kredituen bidez.

Nafarroako Unibertsitate Publikoa, (NUP). Nafarroako Parlamentuak eskaturik, Nafarroako Unibertsitate Publikoa 1987an sortu zen. 1995ean, lehenbiziko estatutuak onetsi ziren⁸¹, eta 2003an, estatutuak aldatzea onartu zen⁸². Bi

⁷⁷ <http://www.unavarra.es/>

⁷⁸ <http://www.unav.es/>

⁷⁹ <http://www.uned.es/ca-pamplona/>

⁸⁰ <http://www.unav.es/katedra/castellano/default.html>

⁸¹ 68/1.995 Foru Dekretua, 1995eko martxoaren 13koa

estatuetan euskara eta gaztelania Unibertsitateko hizkuntza gisa aitortuak daude eta, era berean, aitortua dago unibertsitate-erkidegoko kide orok duela euskara administrazioan nahiz irakaskuntzan erabiltzeko eskubidea. Dena dela, desberdintasunak daude bi estatutuen artean euskararekiko tratuari dagokionez; horrela, estatutu berriek legezko estaldura murriztu diote euskarari NUP barnean. Besteak beste, hauxe nabarmenduko dugu: lehenago artikuluetan *bermatu* aditza erabiltzen zen; orain, aldiz, *saiatu* aditza erabiltzen da⁸³; Euskaltzaindia desagertu da euskara erabiltzeko jarraibideak markatzerakoan eta edukiz hustuta gelditzen da Hizkuntza Normalizaziorako Batzordea; araudi berrian ez dago bermatua ikerlanak Unibertsitateko berezko bi hizkuntzetarik edozeinetan aurkeztu eta argitara emateko aukera, etab.

2002ko apirilean, estatutuak aldatu baino urtebete lehenago, Nafarroako Gobernuak euskara unibertsitatean erabiltzeari buruzko lege proiektu bat onetsi zuen. Gobernuaren proposameneko lehen artikulua halaxe zioen, hitzez hitz esan ere: *“La Universidad Pública de Navarra impartirá exclusivamente en castellano o español la docencia de todas las materias y asignaturas que figuran o figuren en sus planes de estudios conducentes a la obtención de títulos universitarios de carácter oficial y validez en todo el territorio nacional, homologados por el Consejo de Universidades o, en su caso, el Consejo de Coordinación Universitaria.”* Zorionez, proiektu hori ez zen onartu.

2007ko martxoan, hogeitun urteko ibilbidearen ondotik eta hainbat aldiz huts egin ondoren, NUPek Euskararen Plan Estrategikoa onetsi zuen 2007-2009 urteetarako. Plana onetsi eta egun batzuetara, Nafarroako Gobernuak Unibertsitateetarako zuzendari nagusiak “burugabekeria” iritzi zion Unibertsitateko Plan estrategikoari. Haren esanetan, “NUPeko sektore batzuk interesatuta daude Nafarroako Unibertsitate Publikoak Nafarroakoa izateari utz

⁸² Klaustroak 2003ko martxoaren 7an onetsiak; Nafarroako Gobernuak, 2003ko maiatzaren 12an. Nafarroako Aldizkari Ofizialean 2003ko maiatzaren 19an argitara emandakoak.

⁸³ 1995eko estatuetako 106. artikulua halaxe dio: Unibertsitateak euskara eta gaztelania aldi berean erabiltzea bermatuko du; aldaketaren ondotik, 122. artikulua, ordea, hauxe dio: “Unibertsitatea gaztelania eta euskara erabiltzen saiatuko da”.

diezaion, Euskal Herriko Unibertsitateko luzapen hutsa izan dadin, eta NUP ez daiteke ezertan ere EHU bezalakoa izan⁸⁴.

Azaldutakoa gogoan, gure iritziz, bide luzea egiteko dute bai agintariek bai betebehar hori betetzeko ardura dutenek.

Azkenik, puntu honetan Udako Euskal Unibertsitatea ekarri behar dugu lerrootara⁸⁵, (UEU). Erakunde hori ez da berez Unibertsitatea, baina 70eko hamarkadatik aurrera, lanean ari da Nafarroan; zehazki, unibertsitate mailako euskara hutsezko ikastaroak eta mintegiak ematen ditu. 2001eko otsailean, 10 urtetik gora UEUren jarduerak finantzatzen aritu ondoren, Nafarroako Gobernuak erakundearekin harremanak haustea eta sinatua zegoen hitzarmena bertan behera uztea erabaki zuen.

8. artikulua 1.f) paragrafoa. Helduen heziketa

Helduen heziketa edo etengabeko heziketa neurri handi batean edo erabat erregio edo gutxiengoen hizkuntzetan burutzeko ikastaroak eskain daitezzen beharrezko erabakiak hartzea, edo hizkuntza horiek helduen heziketako eta etengabeko heziketako ikasgaiak izan daitezela proposatzea, edo herri-agintariek ez badute helduen heziketaren arloko zuzeneko aginpiderik, helduen heziketan eta etengabeko heziketan hizkuntza horiek irakats daitezzen bultzatu eta sustatzea;

Agintariek puntu honetan Nafarroari buruz emandako informazioa ez dator bat Kartak dakarren betebeharrarekin, hau da, ez da deus esaten helduen heziketari buruz.

Nafarroan, maila publikoan eta pribatuan bermatzen da helduen heziketa.

Azken urteotan, Nafarroako Gobernuak erabat murriztu ditu euskaltegiei⁸⁶ ematen dizkien dirulaguntzak, hau da, 2002an kostuaren % 45 diruz laguntzetik 2005ean % 18ra pasatu zen. 1997an, Nafar Gobernuak dirutza handiagoa bideratzen zuen helduen heziketara 2007an baino.

⁸⁴ Ikus Diario de Navarra, 2007/04/26.

⁸⁵ <http://www.ueu.org/ueu/about>

⁸⁶ Helduei euskaraz mintzatzen irakasteko euskarazko izena, gaztelaniaz ere bere horretan erabiltzen dena.

Gure iritziz, jarrera murrizgarri hori ez dator Kartarekin bat.

8. artikulua 1.g) paragrafoa. Historia eta kultura irakastea.

Erregio edo gutxiengo hizkuntzek adierazten duten historia eta kultura

irakatsi ahal izateko erabakiak hartzea.

Agintari espainiarren Txostenak ez du deus esaten horri buruz.

2000ko abenduan, Nafarroako Gobernuak iragarri zuen argitaratu eta ezarri egingen zela ikastetxeei ikasleek erabili beharreko euskarazko ikasliburuak; bereziki, Geografia eta Historiakoak. Plana presaka gauzatu nahi izan zuten, itzulpen okerrak ere izan ziren eta eragileek protesta egin zuten; horren ondorioz, Nafarroako Gobernuak asmo hura bazterrean utzi zuen.

2004ko martxoan, Gobernuak argitara emanik eta Opus Dei erakundeko Unibertsitateak idatzirik, *Historia Literaria de Navarra del Siglo XX* liburua aurkeztu zuten, baina Nafarroako hainbat eta hainbat euskal idazle nabarmen utzi zituzten liburutik kanpo.

2007ko apirilean, UPNri lotuta dagoen Leyre gizarte eta kultur Fundazioak antolaturik, alderdi horretako Pello Urquiola zinegotziak euskaraz idatzitako liburua aurkeztu zen: "*Nere hitze bertsoatan-Mi palabra en bertsos*"⁸⁷. Liburu horretan Francisco Franco diktadorearen aldeko lausenguak egiten dira, esaten da ikastoletan gazte-gaztetatik ikasleei Espainiaren kontrako gorrotoa sartzen zaiela eta arrazakeria ere irakasten dela. Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusi Pedro Pegenautek iragarri zuen⁸⁸ bere departamentuak liburu horren aleak erosiko zituela sare publikoan "egokiro" banatzeko, eta "baita ere" udalen bidez.

Aldiz, Euskara Kultur Elkargoa Fundazioak Nafarroako historiari buruzko liburu bat eman du argitara euskaraz eta gaztelaniaz⁸⁹. NUPeko irakasle Roldan Jimeno

⁸⁷Pello Urquiola. *Nere hitze bertsoatan-Mi palabra en bertsos*. Sahats. ISBN: 9788493533236.

⁸⁸ Ikus Diario de Noticias, 2007/04/20.

⁸⁹ Bixente Serrano Izko. *Nafarroa. Historiaren hariak*. Euskara Kultur Elkargoa. 2006

Juríok Nafarroako historia jorratu duten liburuei buruzko azterlan konparatiboa egin du eta baloraziorik hoberena ematen dio Fundazioak argitara emandako liburuari⁹⁰. Dena dela, administrazioak ez du alerik ere erosi eta sare publikoan eskura daudenak Fundazioak dohaintzan emandakoak dira.

Azaldutakoa gogoan, bide luzea egiteko dute bai agintariek bai betebeharrori betetzeko ardura dutenek.

8. artikulua 1.h) paragrafoa. Irakasleak prestatzea.

Zati honen bidez onartutako a)tik g)ra arteko lerro-aldietan esaten dena indarrean jartzeko, irakasleek beharrezko hasierako eta etengabeko prestakuntza jaso dezatela ziurtatzea.

Azken 10 urteotan, Nafarroako Gobernuak % 30etik gora murriztu ditu Irakasleen Prestakuntzara bideratutako diru baliabideak.

1.i) paragrafoa. Ikuskaritza-organoak .

Erregio edo gutxiengoaren hizkuntzen irakaskuntza finkatu edo garatu asmoz hartutako neurrien eta izandako aurrerakuntzen jarraipena egiteko, ikuskaritza-organo bat edo beste sortzea eta gai horien inguruko txostenak egitea aldiari aldiari. Txosten horiek jendaurrean jarriko dira.

Agintariek emandako informazioan esaten da Eskola Kontseilua dela betebeharrori asetzen duen organoa. Esan behar da Kontseilu hori organo aholku-emailea dela hezkuntza arloko gai orokorretarako⁹¹ eta haren eginkizunen artean ez daudela: erregio edo gutxiengoaren hizkuntzen irakaskuntza finkatu edo garatu asmoz hartutako neurrien eta izandako aurrerakuntzen jarraipena egiteko, ikuskaritza-organo bat edo beste sortzea, ezta eta gai horien inguruko txostenak aldiari-aldiari egitea ere.

⁹⁰ Roldán JIMENO ARANGUREN, "Enseñanza de la foralidad navarra en bachillerato", M^a Cruz Oliver Sola (zuzendaria.) eta Cristina Zoco Zabala (koordinatzailea), *Temas actuales de Derecho*, Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 2007, 249-274. or.

⁹¹ 12/1997 Foru Legea. N.A.O. – 136. zk. 1997ko azaroaren 12a.

Azaldutakoa gogoan, gure iritziz konpromiso hori ez da Nafarroan betetzen ari.

8. artikulua 2 paragrafoa. Irakaskuntza bestelako lurraldeetan.

Irakaskuntzaren arloan, erregio edo gutxiengoan hizkuntzak aspaldidanik erabiltzen diren eskualdetatik kanpo dauden lurraldeei dagokionez, irakaskuntzaren garai egokietan erregio edo gutxiengoan hizkuntzak edo hizkuntzetan irakatsi ahal izatea baimendu, sustatu edo finkatzeko konpromisoa hartu dute kartagileek, erregio edo gutxiengoan hizkuntzaren hiztun kopuruak hala jardutea bidezko egiten badu.

Esanguratsua da, atal honetan, agintari espainiarren bigarren Txostenak eremu ez-euskalduna soilik aipatzea. Izan ere, kontuan harturik agintari horiek berek Kartaren III. zatia eremu euskaldunean soilik aplikatzekoa dela esana dutela, puntu honetan jaso beharko litzateke eremu mistoko euskarazko irakaskuntza. Dena dela, ez dute halakorik egin eta horrek indartu egiten du arestian esan duguna; hots, interpretazio politiko hutsa da, errealitatearekin eta antolamendu juridikoarekin bat ez datorrena.

Eremu ez-euskalduneko euskarazko irakaskuntzari dagokionez, esan behar da foru administrazioak ez duela irakaskuntza hori aitortu 2006ko uda arte; beraz, 16 urte baino gehiago joan dira irakaskuntza hori ofizialki aintzat hartu gabe.

Zalantzarik gabe, hori onuragarria da, baina oraindik bide luzea egin behar da betebehari hori gauzatzeko. Izan ere, Iruñeko metropoli-eremuko udalerrri batzuk eremu ez-euskaldunean sarturik daude, nahiz eta metropoli-eremu horrek *hiri-continuum*a deritzona osatzen duen. Udalerrri horietako auzokideek eta agintariek behin baino gehiagotan eskatu diote administrazioari D ereduan sartzeko aukera izatea eta ikastolak sortzen ere saiatu dira, baina alferrik. Nafarroako Gobernuak enkargatutako azterlan soziolinguistikoaren arabera, udalerrri horietako auzokideen % 71k eremu mistoan sartu nahi zuten, euskarazko irakaskuntza eredia eskola publikoan ezartzeko aukera zekarrelako⁹².

Eremu euskalduneko ikastolek, Udalerri egindako eskaerak eta azterlanek erakusten dute, ongi erakutsi ere, euskarazko irakaskuntzaren aldeko eskaria

⁹² Ikus Diario de Noticias 2006/10/11.

egon badagoela eremu ez-euskaldunean. Hala eta guztiz ere, agintariak ez dute deus egin eskari hori ezagutzeko eta aintzat hartzeko. Ezin jakin eremu horretako zenbat gurasok nahi duten seme-alabei euskarazko heziketa ematea; bestalde, Ikastolan sartzerik duten gurasoek koste handiari egin behar diote aurre, ikastetxe horiek izaera pribatua dutelako.

Azaldutakoa gogoan, bide luzea egiteko dute bai agintariak bai betebeharrak hori betetzeko ardura dutenek.

EGHEKren 9. artikulua. Zuzentza edo Justizia

9. artikulua. Zuzentza

1.- Jarraian zehazten diren neurriak hartzea bidezko egiteko besteko erregio edo gutxiengoaren hiztun kopurua duten zuzentza-agintaritzen barrutiei dagokienean, hizkuntza horietako bakoitzaren egoeraren arabera, eta lerroaldi honetan jasotzen diren aukerez baliatzeak epailaren ustez zuzentzaaren administrazio onari oztoporik jartzen ez badio, kartagileek honako konpromisoak hartu dituzte:

a) auzibideetan: - auzibidean parte hartzen dutenek hala eskatzen badute, auzibidea erregio edo gutxiengoaren hizkuntzan aurrera eramatea ohartematea, eta/edo - auziperatuak bere erregio edo gutxiengoaren hizkuntzan mintzatzeko aukera izan dezan bermatzea, eta/edo - ohartematea errekerimendu eta frogak, ahozkoak zein idatzizkoak, onartezintzat ez hartzea erregio edo gutxiengoaren hizkuntzan egiteagatik, eta/edo - gutxiengoaren hizkuntza horietan aurrera eramanean ahal izatea, beharrezkoa bada interpretari eta itzultzaileez baliatuta, interesatuei gehiago ordaindu beharra ekartzen ez badiote;

b) zibil arloko auzibideetan, - auzibidean parte hartzen duenetakoren batek hala eskatzen badu, auzitegiek auzibidea erregio edo gutxiengoaren hizkuntzetan aurrera eramanean ezatela ohartematea, eta/edo - auzibidean parte hartzen duenetakoren batek epaimahaiaren aurrean agertu behar badu eztabaidaren batean, bere erregio edo gutxiengoaren hizkuntzan hitz egin ahal izatea baimentzea. Horrek ez dio gastu gehigarriarik ekarriko, eta/edo - Karta eta frogak erregio edo gutxiengoaren hizkuntzetan sortzea baimentzea, horretarako interpretariak edo itzulpenak erabili behar badira ere;

c) Administrazio arloan aginpidea duten auzibideetan:

- auzibidean parte hartzen duenetakoren batek hala eskatzen badu, auzitegiek auzibidea erregio edo gutxiengoaren hizkuntzetan aurrera eramanean ezatela ohartematea, eta/edo - auzibidean parte hartzen duenetakoren batek epaimahaiaren aurrean agertu behar badu eztabaidaren batean, bere erregio edo gutxiengoaren hizkuntzan hitz egin ahal izatea baimentzea. Horrek ez dio gastu gehigarriarik ekarriko, eta/edo - Karta eta frogak erregio edo gutxiengoaren hizkuntzetan sortzea baimentzea, horretarako interpretariak edo itzulpenak erabili behar badira ere; - b eta c lerroaldietan lehen eta hirugarren azpiatalak ezartzeak eta aldi batez interpretari nahiz itzulpenez baliatu behar interesatuei gastu gehigarriarik eragin ez diezaieten neurriak hartzea.

2.- Kartagileek honako konpromisoak hartu dituzte:

a) estatu bateko legezko egintzak ez baliogabetzea erregio edo gutxiengoaren hizkuntza batean idatzita egoteagatik soilik, edo

3.- Estatu mailako lege nagusiak eta bereziki erregio edo gutxiengoaren hizkuntzei eragiten dietenak erabiltzaileen eskuetan hizkuntza horietan jartzeko konpromisoa hartu dute kartagileek, testu horiek dagoeneko beste moduren batean jasotzerik ez baldin badago behintzat.

Ezer baino lehen, adierazi nahi dugu artikulua hau Nafarroan nola eta noraino aplikatu den aztertzerakoan, ez dugula konpromiso bakoitza aztertuko, aurreko artikuluan egin dugun bezalaxe.

Artikulu honetan ere berriro agerian dago arestian aipatu dugun kontraesana, hau da, agintariek diote Kartaren III. zatia eremu euskaldunean soilik aplikatzekoa dela baina errealitatea bestelakoa da. Horrela, nafar agintariek emandako informazioak aipamena egiten dio Nafarroako justizia administrazioaren sistema osoan gertatzen denari, eta horrek lurralde osoa hartzen du; ez soilik eremu euskalduna.

9.1 artikuluari dagokionez, bitxia da ikustea nola agintariek dioten gauzatu egin dutela beren betebeharra itzulpen sistema hutsaren bidez. Gogoratu behar dugu itzulpenak berehalakotasuna kentzen duela auziko parteent artean eta informazioaren kalitatea murrizten du ahozko auzibideetan. Itzulpena neurri gabe erabiltzeak oztopo egin diezaioke justizia zuzen administratzeari. Zalantzarik gabe, egoera hori erabat lotua dago justizia administrazioari lanpostuetan euskara jakiteari ematen zaion balorazioarekin. Beharrezkoa da administrazio eskudunek (estatukoak nahiz autonomikoak) arreta handiagoa eskaintzea arlo honi, bai eta euskaraz mintzatzen jakiteari balio handiagoa ematea ere, Nafarroako auzitegi-tako postuak hornitzerakoan. Guztiz esanguratsua da Estatuko administrazioaren eskumeneko lanpostuent artean, bakar batean ere euskara derrigorrez jakitea ez eskatzea.

9.2 artikuluari dagokionez, ohar bat egingen dugu: arazoa soilik ez da euskarazko agiriak baliozkotasuna duten ala ez; era berean, oso garrantzitsua baita agiri horiei ematen zaion baliozkotasun maila. Izan ere, gertatu izan da auzibideetan frogatzat onartu diren euskarazko agiri batzuk kontuan hartu ez izana azken borondatea eratzerakoan.

Ezin da esan 9.3 artikulua bete egin dela, ez baitute balio Nafarroako Aldizkari Ofizialari egiten zaizkion aipamenek, aldizkarian arau autonomikoak argitaratu

ematen direlako eta ez estatukoak. Alde horretatik, estatuko arau gutxi daude euskaraz.

Azkenik, gogoratuko dugu 2005eko apirilean Adituen Lantaldeak egindako txostenak hainbat gomendio jaso zituela justizia arlorako, eta administrazio eskudunek ez dituzte aintzat hartu: esaterako, "behar adina neurri hartzea, euskara auzitegietan lan hizkuntza gisa erabil dezaketen Nafarroako Justizia Administrazioko langileen portzentajea maila guztietan handitzeko; bereziki, epaile eta fiskalen artean"⁹³

⁹³ Euro kartak Nafarroan duen aplikaziori buruzko Txostena, Adituen Lantaldeak egindakoa; zehazki, Txosteneko 375-376. paragrafoetan.

EGHEKren 10. artikulua. Administrazioa.

10. artikulua. Administrazioako agintariak eta zerbitzu publikoak.

1.- Jarraian datozen neurriak hartzea bidezko egiteko besteko erregio edo gutxiengoan hizkuntzetako hiztun kopurua duten estatuko administrazio-barrutietan, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera, kartagileek honako konpromisoak hartu dituzte, aurrera eramatea posible den neurrian burutzekoak:

a) - administrazio horiek erregio edo gutxiengoan hizkuntzak erabil ditzatela zaintzea, edo b) - jendearentzat ohizkoak diren administrazioako agiri eta testuak erregio edo gutxiengoan hizkuntzetan edo elebitan jartzea; c) - administrazioari agiriak erregio edo gutxiengoan hizkuntzan idazteko aukera ematea.

2.- Jarraian datozen neurriak hartzea bidezko egiteko besteko erregio edo gutxiengoan hizkuntzetako hiztun kopurua duten toki edo erregio agintaritzetara dagokienean, kartagileek honakook baimendu eta/edo sustatzeko konpromisoa hartu dute:

a) eskualde edo toki mailako administrazioaren esparruan erregio edo gutxiengoan hizkuntzak erabiltzea; b) erregio edo gutxiengoan hizkuntzetako hiztunek hizkuntza horietan ahoz edo idatziz eskariak aurkeztu ahal izatea; c) eskualdeko taldeek beren agiri ofizialak erregio edo gutxiengoan hizkuntzetan ere argitaratzea; d) toki mailako taldeek beren agiri ofizialak erregio edo gutxiengoan hizkuntzetan ere argitaratzea; e) erregio edo gutxiengoan hizkuntzak erabiltzen diren eskualdeetako taldeek beren batzarretako eztabaidetan hizkuntza horiek erabiltzea. Horrek ez du esan nahi estatuko hizkuntza ofiziala edo ofizialak erabiliko ez direnik; g) erregio edo gutxiengoan hizkuntzetako toponimia aspaldidaniko moduan eta zuzentasunez erabiltzea edo erabiltzen hastea, bestela ezin denean estatuko hizkuntza ofizial edo ofizialetako izenekin batera.

3.- Administrazioako agintaritzek edo hauen izenean diharduten beste pertsona batzuek eskaintzen dituzten herri-zerbitzuei dagokienez, erregio edo gutxiengoan hizkuntzak erabiltzen diren eskualdeei dagokienez, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera eta aurrera eramatea posible den neurrian, honako konpromisoak hartu dituzte kartagileek:

a) zerbitzua eskaintzean erregio edo gutxiengoan hizkuntzak erabil daitezkeen zaintzea, edo b) erregio edo gutxiengoan hizkuntzetako hiztunek eskariak hizkuntza horietan egin eta erantzunak ere hizkuntza berean jaso ahal izatea baimentzea, edo c) erregio edo gutxiengoan hizkuntzetako hiztunek eskariak hizkuntza horietan egin ahal izatea baimentzea.

4.- Onartu dituzten 1., 2., eta 3. lerroaldietako erabakiak indarrean jarri ahal izateko, kartagileek jarraian datozen neurrietako bat edo batzuk betetzeko konpromisoa hartu dute:

a) eskatuko balitz, idatzizko edo ahozko itzulpena egitea; b) behar beste herri-langile kontratatu edo, bestela, lanean dihardutenak prestatzea; c) Erregio edo gutxiengoan hizkuntzaren bat ezagutzen duten herri-langileek hizkuntza horiek erabiltzen diren lurraldeetan lan egitea eskatzen badute, ahal den neurrian aukera hori ematea.

5.- Abizenak erregio edo gutxiengoan hizkuntzetan erabili edo erabiltzen hastea baimentzea, interesatuek hala eskatzen badute.

Atarikoak.

Artikulu honetan ere berriro agerian dago arestian aipatu dugun kontraesana, hau da, agintariek diote Kartaren III. zatia eremu euskaldunean soilik aplikatzekoa dela baina errealitatea bestelakoa da. Beraz, agintariek era murrizgarrian interpretatzen dute foru legediaren garapena, hau da, eremu euskaldunaren barrenean soilik aitortzen dituzte eskubideak eta betebeharrak. Gainera, hain zuzen ere, euskararen kudeaketa administrazio publikoan dago interpretazio horren jatorrian eta, zehazki, foru lurraldearen irudia eta lanpostuetan sartzea.

Izan ere, Euskararen Legea 1986an onetsi zenez geroztik, 1994ra arte ez zen arautu euskararen erabilera Nafarroako Administrazio Publikoetan; zehazki, martxoaren 21eko 70/1994 Foru Dekretuaren bidez egin zuten, zeinaren bidez euskararen erabilera arautu egin baitzen Nafarroako Administrazio Publikoetan. Erantzunak berehala etorri ziren; horrela, handik hilabetera, J.I. Del Burgok (garai hartan PPko buruzagi gorenetakoa zen) kritika zorrotzak egin zituen eremu mistoa arautzen zuten xedapenen aurka, foru administrazioan zirkuitu elebidunak eratzen zituztelako. Del Burgoren esanetan, Itzulpen Atalarekin nahikoa zen eremu horretako herritarren eskubideak asetzeko⁹⁴.

Dekretua onartu eta hiru hilabetera, 70/1994 Foru Dekretuaren ordean 135/1994 Foru Dekretua⁹⁵ onartu zen. Aldaketek eremu mistoari emandako edukia murriztu egin zuten⁹⁶.

2000. urtean, Nafarroako Gobernuak beste Foru Dekretu bat onetsi zuen euskararen erabilera administrazio publikoan arautzeko, hots, 372/2000 FD⁹⁷. Azken dekretu horrek erabat eskubiderik eta betebeharririk gabe utzi zuen eremu

⁹⁴ Rodríguez Ochoa, José Ma "Aplicación y desarrollo de la Ley Foral del Vascongado", hainbaten artean, *15 Años de la Ley del Euskera en Navarra*. Revista Internacional de Estudios Vascos, 46, 2, 2001, 564. or.

⁹⁵ Uztailaren 4ko 135/1994 Foru Dekretua; horren bidez, euskararen erabilera arautu zen Nafarroako Administrazio Publikoetan. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 1994ko uztailaren 27a.

⁹⁶ Rodríguez Ochoa, José Ma, arestian aipatutako lanean; 568. or.

⁹⁷ Abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretua, euskararen erabilera Nafarroako Administrazio Publikoetan arautzeko. 3. zk. – data:2001/01/05

mistoa, eta euskara eremu euskaldunera zokoratzen du, eta han ere ez oztoporik gabe, alajaina. Euskara Nafarroako bide-seinaleetatik desagertu zen, eremu euskaldunetik izan ezik; eremu mistoan, ia balio osoa kendu zitzaion euskara jakiteari, eta betiere ingelesarekin, frantsesarekin eta alemanarekin parekatuta. Arau hori onestearen ondorioz, Nafarroako Administrazio Publikoak 2001ean ezabatu egin zituen euskara jakitea beharrezkoa zen lanpostuen % 40: hau da, 253tik 149ra eta Foru Administrazioan 13.000 langile ari ziren. Alderdi politiko, sindikatu, gizarte talde eta herritar askok, bai eta hiru hizkuntza eremuetako 58 udalek ere (hots, 86.000 herritarren ordezkariak zutenak) dekretua auzitara eramane zuten⁹⁸.

2002an, auzitegiek 372/2000 Foru Dekretua baliogabetu zuten, huraxe onesteko prozeduran izaniko forma-akatsengatik. Dena dela, behin aipatu akatsak zuzenduta, Nafarroako Gobernuak beste foru dekretu bat onetsi zuen⁹⁹; hori bai, berdin-berdina. Dekretu berriaren kontrako errekurtsioa ere tartekatu zen auzitegietan, eta epai finkoaren zain dago.

Horrela, foru dekretuen bidez, arian-arian euskararen erabilera murriztu egin dute administrazio publikoan (foru dekretuak Euskararen Foru Legeak baino lerrun apalagoa du). Legezko agindurik batere ez dago eskubide murrizketa horien azpian; irizpide politiko hutsa izan da. Eta irizpide politiko horiek berek esaten dute Kartaren III. zatia eremu euskaldunetan soilik aplikatu behar dela.

Azkenik, bi ohar azalduko ditugu Estatuak egin dituen iruzkin orokorrei buruz: lehenik eta behin, bat gatoz Estatuak agintari zentralarekin aitortzen dutenean bere administrazioak borondaterik ez izatea funtsezkoa gertatu dela gai honetan aurrerapausorik ez izateko. Gure aldetik, horri gehitu nahi diogu, Espainiako Konstituzioa onartu eta Estatuak hizkuntzetan duen aniztasuna aitortu zenetik, 29 urte joan diren honetan, borondate falta horrek egiturazko sustraiak dituela. Estatuak aitortu bai, aintzat hartu bai, baina ez du betetzen, ez du egiten.

⁹⁸ Ikus Diario de Noticias 01/03/06.

⁹⁹ Otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretua, euskararen erabilera Nafarroako Administrazio Publikoetan arautzeko. Nafarroako Aldizkari Ofiziala. 19. zk. 2003/02/12

Bigarrenik, nabarmendu nahi dugu Nafarroako Gobernu Delegazioak emandako informazioa: esplizituki bada ere, aitortu egiten du zonifikazioak mugaketa dakarrela Kartatik eratorritako konpromisoak betetzeko¹⁰⁰.

10. artikulua. 1. a), b), c) paragrafoak. Estatuko Administrazioa. Herritarrentzako arreta.

gutxiengoen hizkuntzetako hiztun kopurua duten estatuko administrazio-barrutietan, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera, kartagileek honako konpromisoak hartu dituzte, aurrera eramatea posible den neurrian burutzekoak: a) administrazio horiek erregio edo gutxiengoen hizkuntzak erabil ditzatela zaintzea, edo b) jendearentzat ohizkoak diren administrazio-ak agiri eta testuak erregio edo gutxiengoen hizkuntzetan edo elebitan jartzea; c) administrazioari agiriak erregio edo gutxiengoen hizkuntzan idazteko aukera ematea.

Nafarroan konpromiso hau betetzen ari direla esaterakoan, agintariak eremu mistoaz nahiz ez-euskaldunaz mintzo dira.

Espainiako Erresumari buruzko lehendabiziko Txostenean (2005eko apirila), Adituen Lantaldeak agintariak animatu zituen langile euskaldunen portzentajea nabarmen handitzera Estatuko Administrazioaren eskumeneko arloetan eta prestakuntza programa egokiak ezartzera¹⁰¹.

Gobernu Delegazioak dio bete egiten dela herritarrei euskaraz harrera egiteko eta haiekin komunikatzeko konpromisoa ele bitan dauden inprimakien eta seinaleen bidez, eta euskaraz dakien telefonista baten bitartez. Telefonista horrek, aldi berean, itzulpen eta administrazio-laguntzaile lanak egiten ditu, eta ez dago argi horretarako gaitua dagoen.

Azaldutakoa gogoan, gure iritziz, agintariek ez dute konpromiso hori betetzen.

¹⁰⁰ Euro-kartaren aplikazioa Espainiako erresuman; bigarren txostena. 293. or.

¹⁰¹ Euro kartak Nafarroan duen aplikaziori buruzko Txostena, Adituen Lantaldeak egindakoa; zehazki, Txosteneko 384-385. paragrafoetan.

2. a), b) paragrafoak. Eskualdeko eta tokiko Administrazioa. Herritarrentzako 10. artikulua. Arreta.

Jarraian datozen neurriak hartzea bidezko egiteko besteko erregio edo gutxiengoan hizkuntzetako hiztun kopurua duten toki edo erregio agintaritzei dagokienean, kartagileek honakook baimendu eta/edo sustatzeko konpromisoa hartu dute: a) eskualde edo toki mailako administrazioaren esparruan erregio edo gutxiengoan hizkuntzak erabiltzea; b) erregio edo gutxiengoan hizkuntzetako hiztunek hizkuntza horietan ahoz edo idatziz eskariak aurkeztu ahal izatea .

Agintariak emandako informazioaren arabera, Nafarroan bermatua dago herritarrei euskarazko harrera egitea eta euskara erabiltzea 29/2003 Foru Dekretuaren bidez, bai eta Nafarroako Gobernuaren web orriaren bidez ere¹⁰². Bestalde, 29/2003 Dekretuari dagokionez, arestian esan dugu, agintariak adierazitakoaz bestela, euskararen erabilera murriztu egin duela Nafarroako administrazio publikoan eta aurreko araudiak aitortuak zituen eskubideak mugatu dituela. Oso zinikoa gertatzen zaigu benetan dekretu hori erabiltzea, konpromisoa betetzen ari dela justifikatzeko.

Nafarroako administrazioaren ia zerbitzu guztien egoitza eremu mistoan dago; Iruñean, zehazki, eta ez dute euskarazko harrera bermatzen. Gainera, Espainiako Txostenak emandako datuek bere horixe baieztatzen dute¹⁰³.

Zenbakiei erreparatuta, administrazioan ari diren 18.245 langiletatik, 1.725ek behar adina dakite euskaraz mintzatzen, hau da, langile guztien % 9,45ek. Zenbaki hori Nafarroako euskaldun kopuruaren azpitik dago. Baina datuak horrela aztertzeak okerra dakarkigu. Izan ere, euskaraz omen dakiten 1.725 langile horietatik, 1.446 hezkuntza departamentuari dagozkio, eta gehienak D, B eta A ereduko ikastetxeetako irakasleak eta administrariak dira. Beraz, Hezkuntza Departamentuko datuak alde batera utzita, emaitza hau da: administrazioan ari diren langileetatik, % 2 inguruk daki euskaraz herritarrei

¹⁰² http://www.navarra.es/home_es

¹⁰³ Euro-kartak Espainiako erresuman duen aplikazioari buruzko bigarren Txostena; 345. eta 346. orrialdeak.

euskarazko harrera bermatzeko, eta hori, argi eta garbi esateko, ez da inola ere nahikoa. Horren ondorioz, euskaldunek gehienetan (gehienek gaztelania baitakite) gaztelania erabiltzen dute administrazioarekin harremanetan sartzerakoan, gestioak ahalik eta lasterren moldatzeko.

Beste alde batetik, agintariak web orria aipatu dute konpromiso hori betetzen dela frogatzeko; baina esan behar da web orriaren informazio osoa ez dagoela euskaraz. Gehienetan, lehen orriak izaten dira; are gehiago, web orriaren bidez ematen diren zerbitzuak gaztelania hutsez daude (enplegu publikoa, kontratazioak, bekak, laguntzak, errenta, etab.). Bitxikeria gisa, adieraziko dugu Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak gaztelania hutsez duela bere web orria.

Gauza berbera gertatzen da Iruñeko Udalean. Administrazio autonomikoan bezala, udalerrian euskararen erabilera eta sustapena arautzen duen ordenantza hainbat aldiz aldatu dute, euskarari leku gutxiago uzteko. Hala eta guztiz ere, eta epaileek emandako hainbat epairen ondorioz¹⁰⁴, gora jo du euskaraz jakitea beharrezkoa den lanpostu kopuruak, baina oraindik ez da nahikoa euskarazko harrera bermatzeko.

Puntu honetan, agintariak ez dituzte bete ez konpromisoak, ez Adituen Lantaldeak egindako gomendioak; horrenbestez, gure iritzia da konpromiso hau ez dela Nafarroan betetzen ari.

10. artikulua 2. c), d), paragrafoak. Eskualdeko eta Tokiko Administrazioa. Testu ofizialak.

Jarraian datozen neurriak hartzea bidezko egiteko besteko erregio edo gutxiengo hizkuntzetako hiztun kopurua duten toki edo erregio agintaritzei dagokienean, kartagileek honakook baimendu eta/edo sustatzeko konpromisoa hartu dute: c) eskualdeko taldeek beren agiri

¹⁰⁴ Administrazioarekiko Auzi-errekurtsoa. Prozedura arrunta: 138/2003, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sala; 123/2005 epaia, Administrazioarekiko Auzi-errekurtsoa, Prozedura arrunta: 230/2004, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sala; Administrazioarekiko Auzi-errekurtsoa, prozedura laburtua: 319/2006, Nafarroako Auzitegi Nagusiko 1. Administrazioarekiko Auzien Epaitegia.

ofizialak erregio edo gutxiengoen hizkuntzetan ere argitaratzea; d) toki mailako taldeek beren agiri ofizialak erregio edo gutxiengoen hizkuntzetan ere argitaratzea.

Nafarroako Aldizkari Ofiziala argitalpen bereizian argitara emateak bermatzen du tokiko eta autonomiako agintarien testu ofizialak euskaraz argitaratzea.

2. e), f) paragrafoak. Eskualdeko eta Tokiko Administrazioa. Euskara eztabaida saio publikoetan erabiltzea.

Jarraian datozen neurriak hartzea bidezko egiteko besteko erregio edo gutxiengoen hizkuntzetako hiztun kopurua duten toki edo erregio agintaritzei dagokienean, kartagileek honakook baimendu eta/edo sustatzeko konpromisoa hartu dute: e) erregio edo gutxiengoen hizkuntzak erabiltzen diren eskualdeetako taldeek beren batzarretako eztabaidetan hizkuntza horiek erabiltzea. Horrek ez du esan nahi estatuko hizkuntza ofiziala edo ofizialak erabiliko ez direnik

Konpromiso hau bermatua dago. Dena den, gauza bat aipatu beharra dago: ordezkari publiko batzuek ez dute aldi bereko itzulpen zerbitzua erabiltzen, euskaraz ez jakin arren. Hori, inolako zalantzarik gabe, guztiz gaitzesgarria da.

10. artikularen 2. g) paragrafoa. Eskualdeko eta Tokiko Administrazioa. Toponimoak erabiltzea.

Jarraian datozen neurriak hartzea bidezko egiteko besteko erregio edo gutxiengoen hizkuntzetako hiztun kopurua duten toki edo erregio agintaritzei dagokienean, kartagileek honakook baimendu eta/edo sustatzeko konpromisoa hartu dute: g) erregio edo gutxiengoen hizkuntzetako toponimia aspaldidaniko moduan eta zuzentasunez erabiltzea edo erabiltzen hastea, bestela ezin denean estatuko hizkuntza ofizial edo ofizialetako izenekin batera.

Ez dator errealitatearekin bat agintariek atal honetan emandako informazioa. Aipatzen dute Nafarroa osoan (ez bakarrik eremu euskaldunean) toponimoen forma ofiziala erabiltzen dela, dela gaztelaniazkoa, dela euskarazkoa, dela forma mistoa; baina hori ez da horrela.

Eremu euskaldunetik kanpo, Nafarroako Gobernuak gaztelania hutsez jarri ditu toponimoak eta udalerrien euskarazko izen ofizialak zokoratu ditu. Horrek hainbat egoera sorrarazi ditu; ondotik, haietariko batzuk aipatuko ditugu.

2001eko urtarrilaren 19an, eremu mistoko seinale elebidun guztiak berehalakoan gaztelania hutsezkoengatik aldatzeko gobernu-erabakia argitara eman zuen Nafarroako Aldizkari Ofizialak; 11 egun lehenago onetsitako erabakia da¹⁰⁵. Gizarteak erabaki hura auzitegietara eraman zuen eta auzitegiek 2006ko ekainean ezabatu zuten behin betiko. Hona hemen gobernuburuaren erantzuna: inork ere ez duela Gobernua kartelak aldatzera behartuko, plan berria "askatasunetik abiatu delako"¹⁰⁶.

2004ko azaroan, Nafarroako Parlamentuak atzera bota zuen Bidearen autobia¹⁰⁷ ele bitan errotulatzeari eskatu zuen mozioa; autobiak Iruñea eta Logroño lotzen ditu, eta eremu mistoa eta ez-euskalduna zeharkatzen ditu.

2005eko apirilean, Parlamentuko talde guztiek, UPNk izan ezik, kritikatu egin zuten Nafarroako eremu mistoan dauden errepideetako seinaleak gaztelania hutsez egotea¹⁰⁸. Uztailean, Agoitz udalerriko auzokideek herriko euskarazko toponimoa ("Agoitz") errespetatzeko eskatu zuten¹⁰⁹. Urrian, Lizarrako Udalak udalerriko izen ofizialak (Estella eta Lizarra) aldatzea onetsi zuen (aurrerantzean, izen ofizial bakarra izanen du: Estella-Lizarra), administrazio autonomikoari euskarazko izen ofiziala erabiltzea etengabe *ahazten* zitzaiolako.

¹⁰⁵ 2001eko urtarrilaren 8ko erabakia, Nafarroako Gobernuak hartutakoa. Haren bidez, "euskararen erabilerari buruzko araudia eremu mistoan aplikatzeko ekintza-plana" onetsi zen. Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 9. zenbakia.

¹⁰⁶ Ikus Diario de Noticias, 2006/10/05

¹⁰⁷ Ikus Gara, 2004/11/27.

¹⁰⁸ Ikus Diario de Noticias, 2005/03/23.

¹⁰⁹ Ikus Diario de Noticias, 2005/07/04.

2006ko otsailean, izen ofizial elebiduna duten eremu mistoko udalerrien bide-errotulazioa euskaraz ere jartzeko eskatu zion Nafarroako Arartekoak Nafarroako Gobernuko Herrilantetarako Departamentuari. Arartekoaren iritziz, Departamentuaren irizpideak ez zetozen bat Euskararen Foru Legearekin¹¹⁰.

2007an, Nafarroako Auzitegi Nagusiak Nafar Gobernua epai bidez behartu du Zizur Nagusiko seinaleak Bideko autobian ele bitan jartzera, herri horrek euskarazko izen ofiziala ere baduelako¹¹¹.

Iruñeko Udalak, bere aldetik, aurten ere 177 bide-seinale berri paratzea erabaki du hiriko hainbat tokitan. Bide-seinaleak hornitzeko lehiaketan haxe dago zehaztuta: "hiriko norabideak adierazteko seinaleetan eta aluminiozko adierazleetan 100 tamaina erabiliko da gaztelaniarako, eta 70 tamaina berriz, euskararako"¹¹². Horrela, berretsi dute euskarazko errotulazioaren tamaina gaztelaniazkoaren % 30 txikiagoa izanen dela.

Azaldutakoa gogoan, gure iritziz konpromiso hau ez da Nafarroan betetzen ari.

10. artikulua 3. a), b) paragrafoak. Euskara zerbitzu publikoetan erabiltzea.

Administrazioko agintaritzek edo hauen izenean diharduten beste pertsona batzuek eskaintzen dituzten herri-zerbitzuei dagokienez, erregio edo gutxiengo hizkuntzak erabiltzen diren eskualdeei dagokienez, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera eta aurrera eramatea posible den neurrian, honako konpromisoak hartu dituzte kartagileek: a) zerbitzua eskaintzean erregio edo gutxiengo hizkuntzak erabil daitezten zaintzea, edo b) erregio edo gutxiengo hizkuntzetako hiztunek eskariak hizkuntza horietan egin eta erantzunak ere hizkuntza berean jaso ahal izatea baimentzea.

¹¹⁰ Ikus Diario de Navarra, 2006/02/16.

¹¹¹ Administrazioarekiko Auzien sala, Nafarroako Auzitegi Nagusia. Epai: 189/2007, 2007/04/10

¹¹² Iruñeko Udalaren 2007/1 espedientea.

Espainiako agintariek emandako informazioan euskarazko mintzaldi ziklo bat aipatzen da, non euskaraz zekiten langileak kontratatu baitziren. Guk, dena den, uste dugu informazio hori nahikoa ez izateaz gain, okerra ere badela, konpromisoa zerbitzu publiko orokorrei dagokielako eta ez soilik euskaldunentzako zerbitzuei; jakina, euskaldunei zuzendutako zerbitzuetan guztiz ez-eraginkorra litzateke euskaraz ez dakiten langileak kontratatzea. .

Agintari administratiboek kudeatzen dituzten zerbitzu publikoetako euskarazko harrerari dagokionez, azpimarratuko dugu Kartaren 10.1, a) eta b) paragrafoen gainean arestian esan duguna; hau da, administrazioan ari diren langile euskaldunen kopuruari dagokionez eta, euskarazko zerbitzua eskaintzeko, administrazioak duen gaitasunari dagokionez.

Azaldutakoa gogoan, gure ustez konpromiso hau ez da Nafarroan betetzen ari.

10. artikulua 4. a), b), c) paragrafoak. Itzultzaileak, funtzionarioak eta herritarrentzako harrera.

Onartu dituzten 1., 2., eta 3. lerroaldietako erabakiak indarrean jarri ahal izateko, kartagileek jarraian datozen neurrietako bat edo batzuk betetzeko konpromisoa hartu dute: a) eskatuko balitz, idatzizko edo ahozko itzulpena egitea; b) behar beste herri-langile kontratatu edo, bestela, lanean dihardutenak prestatzea; c) Erregio edo gutxiengoan hizkuntzaren bat ezagutzen duten herri-langileek hizkuntza horiek erabiltzen diren lurraldeetan lan egitea eskatzen badute, ahal den neurrian aukera hori ematea.

Paragrafo honetatik eratorritako konpromisoei dagokienez, hauxe ekarri nahi dugu gogora euskarari ematen zaion balorazioaz administrazio publikoetako lanpostuetan sartzean. Euskararen erabilera administrazio publikoan arautzeko foru dekretua eta Iruñeko Udalaren euskararen ordenantza hainbatetan aldatu izanak euskarari gero eta balorazioa txikiagoa ematea izan du xede¹¹³. Gainera, euskara konparazio bidean jarri dute Europako Batasuneko zenbait hizkuntzarekin, merezimendu gisa foru administrazioko lanposturen bat lortzeko

¹¹³ Txosten honetan aipatua; 10. artikulua atarikoetan

baloratzen denean, eta horrek ez du inolako lege-oinarririk; are gehiago, kontuan hartzen badugu herritar europarrek ez dutela inolako eskubiderik Nafarroako administrazio publikoetara hizkuntza horietan zuzentzeko.¹¹⁴

Azaldutako gogoan, gure iritziz, bide luzea egiteko dute bai agintariek bai betebehar hori betetzeko ardura dutenek.

10. artikulua 5. paragrafoa. Patronimikoak

Kartagileek jarraian datozen neurrietako bat edo batzuk betetzeko konpromisoa hartu dute Abizenak erregio edo gutxiengo hizkuntzetan erabili edo erabiltzen hastea baimentzea, interesatuek hala eskatzen badute.

Ez dugu gai honetan deus adierazteko.

¹¹⁴ AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, I. Dictamen jurídico sobre la legalidad del Decreto Foral 372/200. Revista de Administraciones Publicas. 59. zk. 2001

EGHEKren 11. artikulua. Komunikabideak.

11. artikulua. Komunikabideak.

1.- Erregio edo gutxiengoaren hizkuntzak erabiltzen diren lurraldeei dagokienez, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera, herri-agintariek arlo horretan zuzenean edo zeharka aginpiderik edo zer eginik duten neurrian eta komunikabideen independentzia eta autonomia errespetatu behar dela kontutan izanda, kartagileek honako konpromisoak hartu dituzte:

a) Irratia eta telebista neurri batean herri-zerbitzua direla kontutan izanda; erregio edo gutxiengoaren hizkuntzan jardungo duten irrati eta telebista bana gutxienez sor dadila ziurtatzea, edo b) erregio edo gutxiengoaren hizkuntzan jardungo duen irrati bat gutxienez sortzeko sustapena egin eta/edo laguntzea, edo c) erregio edo gutxiengoaren hizkuntzan jardungo duen telebista bat gutxienez sortzeko sustapena egin eta/edo laguntzea, edo d) entzutezko eta ikus-entzutezko lanak erregio edo gutxiengoaren hizkuntzan ekoiztu eta hedatzea sustatu eta erraztea; e) erregio edo gutxiengoaren hizkuntzan jardungo duen aldizkari bat gutxienez sortzeko eta/edo mantentzeko sustapena egin eta/edo laguntzea, edo dirubidezko laguntzak erregio edo gutxiengoaren hizkuntzan sortutako ikus-entzutezkoei ere ematea; g) erregio edo gutxiengoaren hizkuntzan lan egiten duten komunikabideetan jardun ahal izateko kazetari eta beste langile batzuen prestakuntza bultzatzea;

2.- Alboko herrialde batean erregio edo gutxiengoaren hizkuntzan nahiz hauen antzekoren batean sortutako irrati edo telebista-saioak zuzenean hartzeko askatasuna bermatzeko konpromisoa hartu dute kartagileek, eta baita alboko herrialdeetan hizkuntza horietan egindako irrati edo telebista saioak hedatzeari oztoporik ez jartzeko ere. Bestalde, erregio edo gutxiengoaren hizkuntzan nahiz hauen antzekoren batean sortutako idatzizko informazioa dela eta, adierazpen-askatasunari edo informazioa askatasunez hedatzeari buruzko mugarik ez jartzeko konpromisoa ere hartu dute. Aipatutako askatasunez baliatzean, betebeharrak eta erantzukizunak daudenez, legean oinarritutako betekizunak, baldintzak, muga edo zigorrak izan daitezke. Neurriok beharrezkoak dira demokrazian oinarritutako gizarte batean nazioaren segurtasuna, lurralde-osotasuna edo biztanleen segurtasuna, bakea zaintzea, kriminaltasunari alde aurretik aurre egitea, osasuna edo morala babestea, lagun hurkoaren ospea edo eskubideak babestea, ezkutuko informazioa zabaltzea galaraztea edo botere judizialaren aginpidea edo alderdikierarik eza bermatu ahal izateko.

3.- Legearekin bat etorrira sortutako egituretan, erregio edo gutxiengoaren hizkuntzetako hiztunen interesak ordezkatuta egon edo kontutan hartzeko konpromisoa hartu dute kartagileek. Helburua komunikabideen askatasuna eta pluraltasuna bermatzea da.

Artikulu honetan ere berriro agerian dago aurreko artikuluetan aipatu dugun kontraesana, hau da, agintariek diote Kartaren III. zatia eremu euskaldunean soilik aplikatzekoa dela baina errealitatea bestelakoa da, errealitatea eremu horretatik haratago doalako. Gainera, Euskarari buruzko Foru Legeak euskararen mailakako erabilera arautzen du komunikabide publikoetan eta pribatuetan, inolako hizkuntza eremuri lotuta egon gabe, Nafarroa osoan; eta ez soilik eremu euskaldunean.

11. artikulua 1. ai), bi), ci) paragrafoak. Telebista eta irratia.

Erregio edo gutxiengo hizkuntzak erabiltzen diren lurraldeei dagokienez, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera, herri-agintariek arlo horretan zuzenean edo zeharka aginpiderik edo zer eginik duten neurrian eta komunikabideen independentzia eta autonomia errespetatu behar dela kontutan izanda, kartagileek honako konpromisoak hartu dituzte: a) erregio edo gutxiengo hizkuntzan jardungo duten irrati eta telebista bana gutxienez sor dadila ziurtatzea, edo b) erregio edo gutxiengo hizkuntzan jardungo duen irrati bat gutxienez sortzeko sustapena egin eta/edo laguntzea, edo c) erregio edo gutxiengo hizkuntzan jardungo duen telebista bat gutxienez sortzeko sustapena egin eta/edo laguntzea.

Aipatutako bi konpromisoetarik bat bera ere ez dute garatu agintariek Nafarroan. Nafarroako lurraldean zabalduen dauden euskara hutsezko komunikabideak Euskadi Irratia, Euskal Telebista eta, prentsan, Berria dira; haiek guztiak Eusko Autonomia Erkidegotik bultzatuak, eta haietarik bakar batek ere ez du foru administrazioaren laguntza jasotzen. Are gehiago, Euskal Telebista Nafarroan hartzen da errepikagailu pribatuei esker.

Euskara komunikabideetan erabiltzeko ematen diren dirulaguntzei dagokienez, euskara hutsezko komunikabideak zokoratuak daude; eta, aldiz, dirulaguntzak jasotzen dituzte euskara noizbehinka erabiltzen dutenek.

Adituen Lantaldeak¹¹⁵ euskarazko irrati bat sortu eta/edo sustatzeaz egindako gomendioari dagokionez, berriz ere Euskalerrria Irratiaren egoera nabarmendu behar dugu¹¹⁶. Duela 18 urtetik gora, eremu mistoan euskara hutsez ari den irrati bakarra da, eta oraindik ez diote emititzeko baimenik eman, administrazioak atzera bota dituelako irratia lizentzia bat lortzeko egindako eskaerak guztiak. Lizentziarik ez izatearen ondorioz, komunikabide horrek ezin ditu nafar agintariek aldi behin ematen dituzten dirulaguntzak jaso, eta horrek publizitatearen mendean egotera behartzen du irratia. Irratiak afera auzitara eraman du eta, horretarako, argudiatu zuen lizentziak emateko azken prozesua ez zettorrela bat betebeharr juridikoekin. Auzitegietan zazpi urtez aritu ondoren, epaileek 1998ko lizentzia-banaketa balio gabe utzi eta arrazoia irratia eman zioten¹¹⁷. 2006aren bukaeran-2007aren hasieran, epaiak beharturik, nafar agintariek lizentziak emateko prozesua errepikatu eta, berriz ere, irrati hori utzi dute kanpoan; horren ondorioz, komunikabideak berriro auzitegietara jo behar izan du¹¹⁸. Bukatzeko, esanen dugu 1998an lizentzia lortu zuten irratiei eman zaiela berriz ere baimena.

Adituen Lantaldeak egina du euskarazko TB bat sortzeko eta/edo bultzatzeko gomendioa¹¹⁹; bada, horri buruz gogora ekarriko dugu Xaloa Telebistaren eta Ttipi-Ttapa Telebistaren egoeraz esandakoa, bi-biak eremu euskalduneko kokatuak. TB analogikoaren sistematik TB digitalera pasatzearekin, administrazio zentralak Tokiko Telebista Digitalerako Plan Tekniko Nazionala diseinatu eta onetsi du 2004an¹²⁰ sektorea arautzeko. Planak 266 barruti ezarri ditu, eta horietako bost Nafarroarako dira; bat bera ere ez euskal eremurako; eta, hara, eremu horretatik ari dira arestian aipatu ditugun bi telebistak: Xaloa Telebista (1997) eta Ttipi-Ttapa Telebista (1998), hau da, Nafarroatik eta Nafarroarako euskara hutsez ari diren bi telebista bakarrak. Kate bakoitzak

¹¹⁵ Gomendio hori ageri da Euro-kartak Nafarroan izan duen aplikazioari buruz Adituen Lantaldeak egindako Txostenean; 431-432 paragrafoetan, zehazki

¹¹⁶ Adituen Lantaldeak irrati horren egoera aztertu zuen Kartak Espainian izan zuen aplikazioari buruzko lehen Txostenean; 427. paragrafoetan eta hurrengoetan, zehazki.

¹¹⁷ Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Sala. 1140/2005 zenbakia duen epaia, abenduaren 22koa.

¹¹⁸ Nafarroako Auzitegi Nagusia. Administrazioarekiko Auzien sala. Prozedura arrunta: 221/2007

¹¹⁹ Gomendio hori ageri da Euro-kartak Nafarroan izan duen aplikazioari buruz Adituen Lantaldeak egindako Txostenean; 429-430 paragrafoetan, zehazki.

¹²⁰ 439/2004 Errege Dekretua

16.000 ikus-entzule ditu. Dena dela, erregulazio berria kontuan hartuta, eta barruti berri guztiak eremu euskaldunetik kanpo daudenez, bi Telebistek ez dute haien lana babestuko duen legezko esparrurik izanen eta administrazioak ez ditu aintzat hartuko. Beraz, lehenik eta behin, dirulaguntza publikoak ukatuko dizkiete eta laguntza horiek behar-beharrezkoak zaizkie, zerbitzua eskaintzeari eusteko.

Azkenik, esanen dugu Nafarroako Administrazioak onartutako baldintza-pleguetan esaten da bost barruti horietako bakoitzean arituko den telebistako programazioak gaztelania hutsez izan behar duela; zehazki, Tokiko Telebista Digitalerako Plan Tekniko Nazionalak aurreikusi duen barrutietako lurraldeetan emititzeko lizentzia bat lortzeko lehian ari ziren enpresetarako baldintza-pleguak dira horiek¹²¹.

Azaldutakoa gogoan, gure iritziz konpromiso hori ez da Nafarroan betetzen ari.

11. artikulua 1. d) paragrafoak. Ikus-entzunezko lanen ekoizpena sustatzea.

Erregio edo gutxiengoan hizkuntzak erabiltzen diren lurraldeei dagokienez, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera, herri-agintariek arlo horretan zuzenean edo zeharka aginpiderik edo zer eginik duten neurrian eta komunikabideen independentzia eta autonomia errespetatu behar dela kontutan izanda, kartagileek honako konpromisoak hartu dituzte: entzutezko eta ikus-entzutezko lanak erregio edo gutxiengoan hizkuntzan ekoiztu eta hedatzea sustatu eta erraztea.

Agintarien arabera, Nafarroak bere irrati eta telebista zerbitzuak ez izateak eragozten du konpromiso hori betetzea. Arrazoi horrek, ordea, ez du balio; izan ere, sustapenerako konpromisoak ez du sektore pribatua baztertzen eta sektore pribatuan egon badaude komunikabideak, administrazioak kontuan hartzen ez baditu ere.

¹²¹ Kontzesio administratiboak kontratatzeko administrazio klausula partikularren eta ustiapenekoen agiriaren 18. oinarria, Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion bost barrutietan Tokiko telebista Digitaleko Zerbitzu Publikoa Kudeatzeko.

Konpromiso hau ez da Nafarroan betetzen ari.

11. artikulua 1. ei) paragrafoa. Prentsa.

Erregio edo gutxiengo hizkuntzak erabiltzen diren lurraldeei dagokienez, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera, herri-agintariek arlo horretan zuzenean edo zeharka aginpiderik edo zer eginik duten neurrian eta komunikabideen independentzia eta autonomia errespetatu behar dela kontutan izanda, kartagileek honako konpromisoak hartu dituzte: erregio edo gutxiengo hizkuntzan jardungo duen aldizkari bat gutxienez sortzeko eta/edo mantentzeko sustapena egin eta/edo laguntzea.

Ez da onargarria, konpromiso hau betetzen dutela agertzeko, agintariek Nafarroako Gobernuaren web orria aipatzea eta Gobernuaren prentsa zerbitzuan euskaraz dakien kazetari bat izatea. Erakunde horretako komunikazio zerbitzua ez da aldizkaria. Web orria ere ez.

Konpromiso hori ez da Nafarroan betetzen ari.

11. artikulua 1. fii) paragrafoa. Ekoizpenerako laguntza handitzea.

Erregio edo gutxiengo hizkuntzak erabiltzen diren lurraldeei dagokienez, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera, herri-agintariek arlo horretan zuzenean edo zeharka aginpiderik edo zer eginik duten neurrian eta komunikabideen independentzia eta autonomia errespetatu behar dela kontutan izanda, kartagileek honako konpromisoak hartu dituzte: dirubidezko laguntzak erregio edo gutxiengo hizkuntzan sortutako ikus-entzutezkoei ere ematea.

Ez dago horren gaineko berariazko neurririk. Konpromiso hori ez da Nafarroan betetzen ari.

11. artikulua 1. g) paragrafoa. Kazetariak prestatzea.

Erregio edo gutxiengoen hizkuntzak erabiltzen diren lurraldeei dagokienez, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera, herri-agintariak arlo horretan zuzenean edo zeharka aginpiderik edo zer eginik duten neurrian eta komunikabideen independentzia eta autonomia errespetatu behar dela kontutan izanda, kartagileek honako konpromisoak hartu dituzte erregio edo gutxiengoen hizkuntzan lan egiten duten komunikabideetan jardun ahal izateko kazetari eta beste langile batzuen prestakuntza bultzatzea.

Gure iritziz, inola ere ez da nahikoa agintariak konpromiso hau beteta dagoela esatea euskara komunikabideetan erabiltzeko banatzen diren laguntzen marko orokorraren baitan; gainera, laguntza horiek urtetik urtera murriztu egin dituzte.

11. artikulua 2. paragrafoa. Informaziorako askatasuna bermatzea.

Alboko herrialde batean erregio edo gutxiengoen hizkuntzan nahiz hauen antzekoren batean sortutako irrati edo telebista-saioak zuzenean hartzeko askatasuna bermatzeko konpromisoa hartu dute kartagileek, eta baita alboko herrialdeetan hizkuntza horietan egindako irrati edo telebista saioak hedatzeari oztoporik ez jartzeko ere. Bestalde, erregio edo gutxiengoen hizkuntzan nahiz hauen antzekoren batean sortutako idatzizko informazioa dela eta, adierazpen-askatasunari edo informazioa askatasunez hedatzeari buruzko mugarik ez jartzeko konpromisoa ere hartu dute. Aipatutako askatasunez baliatzean, betebeharrak eta erantzukizunak daudenez, legean oharmandako betekizun, baldintza, muga edo zigorrak izan daitezke. Neurriok beharrezkoak dira demokrazian oinarritutako gizarte batean nazioaren segurtasuna, lurralde-osotasuna edo biztanleen segurtasuna, bakea zaintzea, kriminaltasunari alde aurretik aurre egitea, osasuna edo morala babestea, lagun hurkoaren ospea edo eskubideak babestea, ezkutuko informazioa zabaltzea galaraztea edo botere judizialaren aginpidea edo alderdikeriari eza bermatu ahal izateko.

2003ko otsailean, Entzutegi Nazionalak agindurik, Egunkaria izeneko egunkaria itxiarazi zuten, Nafarroan ere hedapena duena. Handik lau urtera, auzia zabalik dago eta epairik gabe.

2004an, Berriozarko Udalak dirulaguntzak kendu zizkion euskarazko Zorrokaria aldizkariari, herriko Zorroka Euskara Taldeak herriko euskaldunentzat euskaraz argitara emandakoa. Udalak laguntza kendu zion ETako preso izandako bati elkarrizketa egiteagatik; Udalaren ustez, elkarrizketak eduki politiko handia zuen. Erabakia Nafarroako auzitegietara eraman eta auzitegiek argitaratzaileen alde eman dute epaia eta dirulaguntza ematera behartu dute Udala.

Azaldutakoa gogoan, bide luzea egiteko dute bai agintariek bai betebeharrak hori betetzeko ardura dutenek.

11. artikulua 3. paragrafoa. Hitzunen interesak ordezkatzeko.

Legearekin bat etorrira sortutako egituretan, erregio edo gutxiengoan hizkuntzetako hitzunen interesak ordezkatzeko egon edo kontutan hartzeko konpromisoa hartu dute kartagileek. Helburua komunikabideen askatasuna eta pluraltasuna bermatzea da.

Foru Komunitatean, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua eratua dago¹²²; hau da, Konstituzioak dakartzan balioak eta printzipioak Nafarroako ikus-entzunezko komunikabideetan (irratian eta telebistan) errespetatu daitezkeen bermatzeaz eta sustatzeaz arduratzen den erakunde independentea da. Kontseiluak zazpi kide ditu, Nafarroako Parlamentuak eta Gobernuak izendatuak. Dena dela, Kontseiluan ez daude euskal hitzunen interesak ordezkatuak eta euskaldunak nekez hartzen dituzte aintzat.

Gure iritziz, konpromiso hau ez da Nafarroan betetzen ari.

¹²² <http://www.consejoaudiovisualdenavarra.es/index.htm>

EGHEKren 12. artikulua. Kultur jarduerak eta zerbitzuak.

12. artikulua. Kultura-jarduerak eta azpiegiturak.

1.- Kultura-jarduera eta azpiegituren arloan batez ere liburutegiak, bideotekak, kultur etxeak, museoak, ikastetxeetako artxibategiak, antzerkiak, zinemak, literatura eta zinemarako ekoizpen-lanak, herri-kulturaren adierazpideak, jaialdiak, kulturaren arloko industriak, guztietan ere batez ere teknologia berria erabiltzea bultzatuko delarik, hizkuntza horiek erabiltzen diren eskualdeari dagokionez eta herri-agintariek aginpideren bat edo zer esanik baldin badute arlo horretan, honako konpromisoak hartu dituzte kartagileek:

a) erregio edo gutxiengo hizkuntzako espresabideak eta ekimenak sustatzea eta hizkuntza horietan sortutako lanak eskuratzeko bideak erraztea; b) erregio edo gutxiengo hizkuntzan sortutako lanak beste hizkuntza batzuetan eskuratu ahal izateko bideak erraztea. Horretarako, itzulpenak, bikoizketak, postsinkronizazio-lanak eta azpitoluak jartzea bultzatu edo garatuko dira; c) beste hizkuntza batzuetan sortutako lanak erregio edo gutxiengo hizkuntzan eskuratu ahal izateko bideak erraztea. Horretarako, itzulpenak, bikoizketak, postsinkronizazio-lanak eta azpitoluak jartzea bultzatu eta garatuko dira; d) kultura-jarduerari hasiera eman edo bultzatzeko ardura duten erakundeek, beren ekimeneko lanak edo beraiek bultzatutakoak burutzerakoan erregio edo gutxiengo hizkuntzak eta kulturak neurri egokian barnera daitezen zaintzea; e) kultura-jarduerari hasiera eman edo bultzatzeko ardura duten erakundeek, beren langileen artean, biztanleen gainontzeko hizkuntzak ezagutzeaz gainera, erregio edo gutxiengo hizkuntzak menperatzen dituztenak izan ditzaten erraztea; f) kultura-jarduerak hornitu eta berauen egitarauak egitearekin zer ikusia duten arloetan, erregio edo gutxiengo hizkuntzetan hitz egiteko gauza diren ordezkariak zuzenean parte har dezaten erraztea; g) erregio edo gutxiengo hizkuntzetan sortutako lanak jaso, gordailua eman eta aurkeztu edo argitaratzeko ardura izango duen erakunde bat edo gehiago sor dadin sustatu eta/edo erraztea; h) halakorik ezin bada, erregio edo gutxiengo hizkuntzetako administrazio, merkataritza, ekonomia, gizarte, teknologia edo lege arloko terminologia egokia mantendu eta garatzeko itzulpen eta terminologiaren arloko ikerketarako zerbitzuak sortu eta/edo sustatu eta finantzatzea.

2.- Erregio edo gutxiengo hizkuntzak aspaldidanik erabiltzen dituzten beste lurralde batzuei dagokienez, hizkuntza horietako hiztun kopurua behar adinakoa baldin bada, kultura-jarduera eta hornikuntza egokiak izan ditzaten baimendu, sustatu eta/edo oharremateko konpromisoa hartu dute kartagileek, aurreko lerroaldian erabakitakoaren ildotik.

3.- Atzerrian aurrera eraman beharreko kultura arloko politikari dagokionez, erregio edo gutxiengo hizkuntzei eta hauek adierazten dituzten kulturei guneko eskaintzeko konpromisoa hartu dute kartagileek.

Artikulu honetan ere berriro agerian dago aurreko artikuluetan aipatu dugun kontraesana, hau da, agintariek diote Kartaren III. zatia eremu euskaldunean soilik aplikatzekoa dela baina errealitatea bestelakoa da, errealitatea eremu horretatik haratago doalako, eta agintariek Txostenean Nafarroa osoko egoerak aipatu dituzte.

Agintariek puntu honetan xehetasunez betetako informazioa eman badute ere, esan daiteke ez dela informazio handia ez kuantitatiboki ez kualitatiboki, eta zenbaitetan, okerra ere bada¹²³. Nafarroan, Espainiako erresumak 12. artikulua bidez hartu dituen konpromisoek bide luzea dute egiteko. Ez dago itzulpenak eta bikoizketak egiteko laguntzarik, laguntza gutxi daude euskarazko jardueretarako, gobernuak euskarazko argitalpen gutxiago plazaratu eta euskarazko liburu gutxiago ere erosten ditu; gainera, zenbaitetan, erabakiak oso-oso eztabaidagarriak dira¹²⁴. Era berean, ez dago beharrak edo euskaraz ekoiztutako lanak bideratzeko organorik eta ia ez dute atzerrian kultur politikarik egiten¹²⁵. Agintariek emandako informaziotik eratorritakoaren arabera, ez dago plangintzarik, eta orain arte garatutakoa noizbehinkakoa da eta izaera sinboliko hutsa du, eraginkortasunik gabea.

Azaldutakoa gogoan, gure iritziz, bide luzea egiteko dute bai agintariek bai betebeharrak hori betetzeko ardura dutenak.

¹²³ Adibidez, ikus 452. or. 12. artikulua b eta c konpromisoak betetzeari dagokionez. Euskarazko lanak beste hizkuntza batzuetan eskuratzea sustatzeko konpromisoa, eta alderantzizkoa, bete dela erakusteko, agintariek aipatzen dituzte Nafarroako Gobernuak ekoiztutako eta enkargatutako bi dokumentalen itzulpena.

¹²⁴ Gogoratu "Nere hitze bertsoetan-Mi palabra en bertso" liburua erosteko: liburu horretan Francisco Franco diktadorearen aldeko lausenguak egiten dira, esaten da ikastoletan gazte-gaztetatik ikasleei Espainiaren kontrako gorrotoa sartzen zaiela eta arrazakeria ere irakasten dela.

¹²⁵ Expolangue Hizkuntzen eta Kulturaren 24. edizioan, Nafarroako Gobernuak gaztelania sustatzen aritu zen. Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak 2007rako eskatu zuen, "Espainia eta espainiar guztien hizkuntza, ohorezko herrialde eta hizkuntza gisa hartuak izateko"¹²⁵. Hitz erdirik ere, ordea, ez zuten esan euskarari buruz.

EGHEKren 13. artikulua. Ekonomia eta gizarte arloa.

13. artikulua. Ekonomia- eta gizarte-arloa.

1.- Ekonomia eta gizarte-arloko jardueri dagokienez, kartagileek honako konpromisoak hartu dituzte herrialde osorako:

a) ekonomia eta gizarte-arloei buruzko agirietan batez ere lan-hitzarmenetan eta agiri teknikoetan, esate baterako ekoizpenak edo hornigaiak nola erabili adierazten dutenetan erregio edo gutxiengoek hizkuntzak erabiltzea benetako arrazoirik gabe galarazi edo mugatzen duten erabaki guztiak kentzea beren legedietatik; b) enpresetako barne-araudietan eta ekintza pribatuetan erregio edo gutxiengoek hizkuntzetako hitzunik hizkuntza horiek erabiltzea galarazi edo mugatzen duten baldintzak izatea debekatzea; c) ekonomia eta gizarte-arloko jardueretan erregio edo gutxiengoek hizkuntzak erabiltzea bultzatzearen aurkakoak diren neurriei aurre egitea; d) erregio edo gutxiengoek hizkuntzen erabilera bultzatzeko, aurreko azpiataletan azaldutako neurriez gainera, beste batzuk erabiltzea erraztu eta/edo sustatzea.

2.- Erregio edo gutxiengoek hizkuntzak erabiltzen diren lurraldeetan, ekonomia eta gizarte-arloko jardueri dagokienean herri-agintariek aginpideren bat baldin badute, aurrera eramatea posible den neurrian, honako konpromisoak hartu dituzte kartagileek;

a) finantza eta bankuei buruzko araubideen bidez, merkataritzan jarduteko moduko baldintzetan, ordainketa-aginduak (txekek, kanbio-letrak, etab.) edo finantza arloko beste agiri batzuk erregio edo gutxiengoek hizkuntzetan erabili ahal izateko bideak jartzea, edo bestela, bide horiei hasiera ematen laguntzea; b) zuzen-zuzenean beren ardurapean dauden ekonomia eta gizarte-arloetan (arlotu publikoa), erregio edo gutxiengoek hizkuntzen erabilera bultzatzeko ekintzak burutzea; c) ospitale, helduen egoitza edo antzeko gizarte-egoitzetan dauden gaixo, adineko edo bestelakoak beren erregio edo gutxiengoek hizkuntzan zaindu ahal izan ditzaten betearaztea; d) segurtasunezko oharrak, modu egokien arabera, erregio edo gutxiengoek hizkuntzan ere idatzita egon daitezkeen zaintzea; e) kontsumitzaileen eskubideen arloan aginpidea duten agintariek emandako argibideak erregio edo gutxiengoek hizkuntzan jaso ahal izatea.

Egia da ez dagoela sektore honetan euskara erabiltzeko debekurik, baina agintariek Txostenean emandako informazioan agerian gelditzen den bezala, Nafarroako Gobernuak ez du ez debekatzen ez egiten ere. Dena sektore

pribatuaren borondatearen esku geratzen da. Horrela, hizkuntza normalizatzeko planak egin dituzten enpresek beren diruz ordaindu behar izan dituzte azterlanak, bai eta behar ziren gainerako lanak ere.

Araudian debekurik ez izatea ez da nahikoa, guk uste, artikulua horretatik eratorritako konpromisoak Nafarroan betetzen direla esateko.

EGHEKren 14. artikulua. Mugaz gaindiko harremanak.

14. artikulua. Mugaz gaindiko harremanak.

Kartagileek honako konpromisoak hartu dituzte:

a) hizkuntza bera edo antzekoa erabiltzen duten eskualdeen gaineko estatuak dituzten bitariko edo askotariko akordioak betetzea edo amaieraraino eramaten saiatzea, estatu horietako hizkuntza beraren hiztunen arteko harremanak erraztu asmoz. Harreman horiek kultura, irakaskuntza, informazioa, lanbide-heziketa eta etengabeko prestakuntzaren arlokoak izango dira;

b) erregio edo gutxiengoaren hizkuntza modu berean edo antzekoan erabiltzen duten lurraldeetako elkarlana erraztea eta/edo sustatzea, batez ere eskualde edo toki mailako elkarleen artekoa, beti ere erregio edo gutxiengoaren hizkuntzen alde.

Agintariek azken artikulua horri buruz dakarten informazioa ere nahasia da. Zehazki, Txostenak euskararekin eta euskal kulturarekin lotuta dauden mugaz gaindiko jarduerak nahasten ditu euskararekin eta euskal kulturarekin inolako zerikusia ez duten jardurekin.

Hiru jarduera, bat 2003an eta bi 2005ean finantzatu izana (ez garatu eta sustatu izana) ez da nahikoa, artikulua honetatik eratorritako konpromisoak betetzen direla esateko. Are gehiago, kontuan hartuta Nafarroa Frantziako Estatuarekin mugakide dela, eta zehatzago Frantziako Euskal Herriarekin, non euskaraz mintzo baitira, eta haietako probintzia bati Nafarroa Beherea deritzon, hots, Nafarroako Erresuma zaharraren lurraldea, Gaztelako Koroaren mendean gelditu ez zena.

Azkenik, ez dugu puntu hau bukatuko gogoratu gabe Frantziako estatuak ez duela Karta berretsi, eta euskara ere lurralde horretako hizkuntza da; Karta ez berrestea biktima bakarra du, biktima bat besterik ez: euskara, bai eta euskaldunak ere.

Ondorioak

EKE-EBLUL erakundeon iritziz, oraindik bide luzea egiteko dute bai agintariak bai Estatuak hartutako konpromisoak betetzeko ardura dutenek Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Kartari dagozkion kontu orotan. Egia esan, Kartatik eratorritako konpromiso gutxi betetzen dira Foru Komunitatean. Handia da benetan Espainiako Erresumak berretsitakoaren eta Nafarroako herritarrek –zehazki, euskaldunek– bizi duten egoeraren arteko aldea.

EKE-EBLUL erakundeok esan dezakegu ez direla bete Ministroen Kontseiluak Nafarroarako egindako gomendioak, ezta Kartak Espainian zuen aplikazioari buruzko lehen txostenean Adituen Lantaldeak egindako gomendio gehienak ere.

Espainiako egungo Txostenak esaten du eremu euskaldunean soilik aplikatu behar direla Espainiak Kartaren III. zatian aurreikusitakoari jarraiki hartutako konpromisoak. Gure iritziz, ordea, hori esateak gauza bat ezkutatu nahi du, hots, agintarien borondate politiko hutsa dago jarrera horren atzean. Izan ere, euskara eta euskaldunak gizartean daude, gizartean bizi dira eta legez aitortuak daude, gainera; hau da, eskubideak eta betebeharrak daude Legeak gure Herrialdean sortu dituen hizkuntza eremuen ginetik. Espainiako Txostenak berak berresten du hori; izan ere, txostenak eremu mistoko eta eremu ez-euskalduneko aipamenak eta egoerak jaso ditu Kartaren 8tik 14ra bitarteko artikulua Nafarroan noraino bete diren aztertzerakoan.

Gizartea agintariak baino askoz ere aurreratuago daude euskararen erabileraren normalizazioan eta, inolako zalantzarik gabe, eremu euskaldunetik askoz ere haratago. Besteak beste, adibide hauek ekarriko ditugu lerrootara: eremu ez-euskalduneko udalerrri batzuetan % 71koa da D ereduaren aldeko eskaria; D ereduko gela gehiago

jartzeko eskaria eremu mistoan; eremu ez-euskaldunean ikastolak izatea; eremu mistoan Euskalerria Irratia izatea; Nafarroan seinaleak ele bitan jartzeko eskaria. Kartaren III. zatia eremu euskaldunean soilik aplikatzeak Nafarroako euskaldun gehienak kanpoan uztea dakar berekin.

Euskarari buruzko Foru Legeak Nafarroa osoko hizkuntza gisa aitortzen du euskara. Antolamendu juridikoak Nafarroa osoan ezartzen ditu eskubideak eta betebeharrak, euskara erabiltzeari eta jakiteari dagokienez. Euskarazko hezkuntza lurralde osoan dago aitortua: derrigorrezko hezkuntza, sare publikoaren bidez eremu mistoan eta euskaldunean, eta sare itunduaren bidez, eremu ez-euskaldunean. Beste alde batetik, euskara komunikabideetan sustatzen da hizkuntza eremuei erreparatu gabe, bai eta kultur nahiz arte agerpideak, liburuen argitalpenak eta ikus-entzunezkoen ekoizpenak ere. Nafar herritar orok dugu Administrazioari euskaraz zuzentzeko eskubidea, baita eremu ez-euskaldunean ere. Dena dela, eguneroko jardunean, Espainiako agintariak, eta nafarrek zehazki, Kartaren III. zatiaren aplikazioa eremu euskaldunera mugatzen dute, beren borondate politiko hutsarekin bat eta legedia nahiz gizartea aintzat hartu gabe.

Interpretazio murrizgarriak berekin dakar Karta Nafarroan ez dela aplikatzen lurraldearen egoera soziolinguistikoarekin bat, 29/2003, Foru dekretuaren xedapenei jarraiki baizik, eta horrek kalte egiten dio Kartaren eraginkortasunari.

Nafarroan, Karta indarrean sartu bada ere, agintarien ekintzek etengabe jarraitu dute euskara ahultzen, euskararen normalizazio prozesua oztopatzen. Esaterako, hainbat aldiz aldatu dute euskararen erabilera Administrazio Publikoetan arautzen duen Foru Dekretua, eremu mistoa edukiz husteko; etengabeak ere dira D ereduari jartzen dizkieten trabak; orain, euskara ingelesarekin lehian jarri nahi dute *British* eredia sortzearen bidez; euskara normalizatzeraren bideratzen diren aurrekontuak murriztu dituzte... Horrek guztiak eskubideak eta betebeharrak murriztu ditu eta, horrez gain, kontra ere egiten dio azalez eta mamiz EGHEKri.

Ez da batere ulergarria euskara Nafarroako bi hizkuntza berezkoetarik bat izanik Nafarroa osoko sare publikoan ezin ikasi izana, eta ingelesa aldiz bai. Aldi berean, ingeles-murgilketa euskarazko eredutik baztertzeak euskara ahuldu egiten du, eta gaztelania, indartu. Bidegabeko bazterkeria horiek ezin dira inola ere onartu Kartaren aterkiaren babesean.


Beharrezkoa da Nafarroan agintariak euskara aintzat hartzea, euskarari benetako balioa eman diezaiotela kontu folklorikoaz haratago; izan ere, euskara gure ondarea baita, gure aberastasuna, eta eskubideak ditugu; gainera, euskararen ezagutza handitzen ari da. Nafarroako, Espainiako eta Europako lege-esparrua era murrizgarrian interpretatzeak euskararen normalizazioa arriskuan jartzea dakar berekin. Beraz, Kartaren III. zatia Nafarroa osoan aplikatu behar da, gizarteak eskatzen duenari erantzuna emateko; gizartean dagoen egoerari erantzuna emateko.

EKE-EBLUL erakundeon iritziz, guztiz beharrezkoa da euskararen aldeko ekintza politikoa egitea, euskaldunen eta gainerako herritarren arteko lege-berdintasuna sustatzera bideratua, herritarren eta haien hizkuntzen egoera zehatzak kontuan hartuko dituen; eta agintariak ez lukete hori hartu behar ezein herritarren kontrako ekintza baztertzaile gisa.

Iruñea, 2007ko irailaren 13a

ERANSKINA

Nafarroako Gobernuko Hezkuntzarako Zuzendaritza Nagusiak euskara normalizatzerako bideratutako gastu portzentajearen bilakaera.



Iruñeko Udalak jarritako seinale elebidunak: euskarazko testua gaztelaniazkoa baino % 30 txikiagoa da eta kolorea ez da batere nabarmena.

